2026-10-30 OSTIRALA
34. ZENBAKIA

DEBABARRENEKO ASTEKARIA
BARRENA.EUS / TOKIKOM.EUS

Barrena

Beldurrak hankak arin Arimen Gauean

Egitarau, molde eta izen ezberdinekin izan arren, Debabarreneko herri guztietan ospatuko da gaur-biharretan Arimen Gaua edo Gaba Beltza

Mallabian Gaba Baltza iragartzeko egindako argazkia. MALLABIKO GABA BALTZA

ETXEBIZITZA

Gune tentsionatu izendapena eskatu dute Debabarreneko lau udalerrik

Ermuko, Eibarko, Soraluzeko eta Debako udalek gune tentsionatu izendatzeko eskaria egin diote Eusko Jaurlaritzari / 2-3

Etxebizitza-bloke bat, Ermuan. GARAZI MENDIETA

MEMORIA HISTORIKOA

Arantza Cazalis gerrako errefuxiatuaren memoriak itzuli dituzte euskarara eta gaztelerara

Ume zela Ermutik ihes egin eta AEBetara iritsi arteko bizipenak ekarri dituzte bi hizkuntzetara Mariaje Izarrak eta Libe Solozabalek / 16-17

Izarra eta Solozabal, itzultzaileak. L.S.

AZOKA

Urtero legez, auzolanean ondutako egitarau zabalarekin ospatuko dute, etzi, Itziarko Peria / 26

NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

URTEURRENA

Elgoibarko Institutuko komunitateak zentroaren 50. urteurrena ospatu du / 8

AINHOA ANDONEGI

ARKEOLOGIA

Haitzuloetako lehoi baten eskeletoa topatu dute Mendaroko leize batean / 5

Etxebizitzak eraberritzen Ermuan. ANDER GOMEZ

Prezioak garesti eta alokairurako eskaintza urria Debabarreneko herrietan

Etxebizitzaren gaia pil-pilean dagoen honetan, Debabarreneko herrietako datuak eta udaletako eta sindikatuetako hainbat ordezkariren esanak jaso ditu BARRENAk erreportaje honetan

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Etxebizitzaren gaia pil-pilean dagoen honetan, BARRENAk Debabarreneko herrietako datuak eta erakundeetako eta sindikatuetako ordezkarien esanak jaso ditu bailarako herrietan etxebizitzaren inguruan dagoen errealitatearen printza batzuk erakusteko. Datuei begiratuz gero, argi ikusten da etxebizitzaren egoeraren ezaugarriak asko aldatzen direla herri batetik bestera; esaterako: pisua erosteko prezioak, etxebizitza ez-nagusien kopurua alokairuaren kostua, edota babes publikoko etxebizitza eskuratzeko aukerak.

Datuak, herriz herri

Etxebizitza kopuruari erreparatuz gero –Eustat, 2024–, Debabarreneko zortzi udalerrietan 36.225 etxebizitza zenbatu dira. Horietatik %85, 30.859, etxebizitza nagusiak dira –bizileku nagusia–, eta %15, 5.318, ez-nagusiak. Hain zuzen, etxebizitza ez-nagusi dira etxebizitza hutsak eta bigarren bizileku gisa edo puntualki erabiltzen direnak. Kostaldeko herrietan handiagoa da ohiko bizileku gisa sailkatuta ez dauden etxebizitzen proportzioa: Deban %25 eta Mutrikun %23. Atzetik daude barnealdeko herri txikiak –Mallabian eta Mendaron %20, Soraluzen %18–, eta, azkenik, herri handiak –Elgoibarren %14, Eibarren %13 eta Ermuan %9–.

Etxebizitzen salmenta prezioari dagokionez –RealAdvisor, 2026ko iraila-urria–, Deba da bailaran metro karratuko preziorik garestiena duen udalerria: 3.387 euro/m². Atzetik datoz Mutriku –3.158 euro–, Eibar –2.657 euro–, Ermua –2.511 euro–, Elgoibar –2.419 euro–, Mendaro –2.047 euro–, Mallabia –1.971 euro– eta, azkenik, Soraluze –1.507 euro–. Deigarria da Debako eta Soraluzeko batez besteko prezioen artean dagoen aldea: 1.880 euro/m². 80 m²-ko balizko etxe batean, aldea 150.000 eurotik gorakoa litzateke.

Debabarreneko etxe-agentzia nagusienetan ez dago alokairuko etxerik

Alokairu prezioari dagokionez ere –Eustat, 2024–, Debak du metro koadroko batez besteko preziorik altuena: 9,4 euro/m² hilean, hau da, 564 euro 60 m² etxebizitza batean. Eibarren 8,9 euro/m² dira –534 euro 60 m²–, Mallabian 8,4 –504–, Ermuan 8,2 –492–, Mutrikun 8,1 –486–, Elgoibarren 7,9 –474– eta Mendaron 7,5 –450–. Soraluzeren kasuan, ez dago ofizialki udalerri mailako kopuru konparagarririk argitaratuta. Eustaten datuak ofizialki alokairuan dauden etxebizitza-parkeari buruzkoak dira, baina sareko plataformetan egiten diren unean uneko eskaintza askoren prezioak bestelakoak dira. Nahikoa da sarean bilaketa azkar bat egitea alde hori baieztatzeko. Horrela, adibidez, ikusten da momentuan dagoen eskaintzarik merkeena hilean 645 eurokoa dela, Mutrikun 50 m² eta hiru logela dituen etxebizitza bati dagokiona. Gainerako eskaintzak prezio horretatik gora daude: 745 euro Elgoibarren –60 m²–, 780 euro Soraluzen –89 m²–, 800 Ermuan –55 m²-ko estudioa– eta Mendaron –48 m² eta logela bakarra–, 850 euro Eibarren –50 m² eta logela bakarra– eta 1.100 euro Deban –90 m² eta bi logela–. Era berean, aipagarriak dira badirela logela soilik eskaintzen duten iragarkiak, eta, gainera, horietako zenbaitetan etxejabeak ohartarazten du maizterrak ez duela erroldatzerik izango. Debabarreneko etxe-agentzia nagusietako eskaintzetan, berriz, ez dago alokairuan eskaintzen den etxebizitzarik.

Gaur egun, alokatuta dauden etxeen datuei erreparatuta –Eustat–, berriz, Debabarrenean, bataz beste, etxebizitzen %11 daude alokairura bideratua. Eibarren dago etxe gehien alokatuta, %13, eta Soraluze dator atzetik, %11rekin. Alokairuko etxerik gutxien, berriz, Mallabian eta Mendaron daude, %7. Etxebizitza parkearen antzinatasunean ere aldeak daude. Zaharrenak Eibarko etxebizitzak dira; batez beste, 59 urte dituzte. Jarraian datoz Mallabikoak, 56 urterekin, eta Soraluzekoak, 54 urterekin. Berrienak direnak, berriz, Elgoibarkoak –46, batez beste– eta Mutrikukoak –45– dira.

Etxebizitza datuak herriz herri

ITURRIA: REAL ADVISOR, EUSTAT.

Herria	m² prezioa eurotan	Etxebizitzak	Etxebizitza ez-nagusia
Mallabia	1.971	548	%20
Ermua	2.511	7.403	%9
Eibar	2.657	13.623	%13
Soraluze	1.507	2.044	%18
Elgoibar	2.419	5.635	%14
Mendaro	2.047	967	%20
Deba	3.387	3.126	%25
Mutriku	3.158	2.879	%23
DEBABARRENA	2.457	36.225	%15

'Etxebizitza bulegoa'
Debegesak, udalekin lankidetzan, *Etxebizitza bulego ibiltaria* izeneko ekimena du martxan, etxejabeei etxeak alokairuan jartzeko programa publikoen eta birgaitzeko laguntzen gaineko informazioa eskaintzen diena, baita eraginkortasun energetikoa handitzeko zerbitzua ere: 943 82 01 10 / 675 87 38 53.

Mobilizazioak Debabarrenean
Estatuko etxebizitza sindikatuek egindako greba orokorrerako deialdiarekin bat eginez, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak ere greba orokorrera deitu du azaroaren 11rako: ELAk, LABek, ESK-k, Steilasek, Etxaldek eta Hiruk, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistarekin batera. Kasu horretan, etxebizitza-eskubidea ez ezik, soldaten igoera –1.500 euroko soldata propioa– eta babes sozial handiagoa ere eskatuko dituzte, alokairu-kontratu mugagabeak, prezioen jaitsiera eta merkatuan esku hartzea, etxegabetzeak amaitzea eta etxebizitza publikoaren parkea handitzea.

Azaroaren 11n, goiz-eguerdian, sindikatu nagusiek deituta mobilizazioak egingo dira Hego Euskal Herriko hiriburuetan, baita Eibarren eta Tuteran ere. Arratsaldean, berriz, mobilizazioak egingo dira herrietan, etxebizitzaren inguruan lan egiten duten eragileen eskutik. Hala, Debabarreneko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak mobilizazioak deituko ditu Mutrikun, Deban, Eibarren eta Ermuan.

Espekulazioa salatzen duen mezua, Soraluzen. EGOITZ UNAMUNO

Lau udalerrik eskatu dute gune tentsionatu izendatzea

Debabarrenean, eremu tentsionatu izendatzeko eskaera egin dute Debako, Ermuko eta Soraluzeko udalek, eta baita Eibarko Udalak ere, auzo batzuetan soilik bada ere: Azitain, Urkizu eta Txonta. Herri bakoitzaren kasuistika askotarikoa da.

Ermua: gazteak emantzipatzeko zailtasunak
Rosi Cid Ermuko alkateorde eta Hirigintza zinegotziaren esanetan, etxebizitzaren gainekoa da Ermuan duten kezka "nagusienetakoa. Jabetzen gara gero eta zailagoa dela etxebizitza lortzea; batez ere, emantzipatu eta euren bizi-proiektua hemen garatu nahi duten gazteentzat. Ez dugu nahi inork Ermutik alde egin behar izaterik ordain dezakeen etxebizitza bat ez aurkitzeagatik". Hala, Cidek azaldu du Ermuko Udalak hainbat neurri hartzen diharduela aukerak zabaltzeko: "Betiondon 80 dotazio-apartamentu eta Idesan babes ofizialeko beste 32 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita. Gainera, Udaletik Eusko Jaurlaritzari Gurecheako eremua eskaini diogu".

Ermua eremu tentsionatu izendatzeko eskaerari dagokionez, alkateordearen ustez, "erabaki garrantzitsua izan da etxebizitza eskuratzeko arazo bat dugula aitortzea eta horri aurre egiteko tresnak behar ditugula onartzea". Ohartarazi du izendapenak ez dituela arazo guztiak konponduko", baina, haren ustez, "ahalbidetu dezake, legeriak jasotako kasuen barruan, eta etxebizitza eskuragarria bermatzera bideratutako politika publikoak sendotzea".

Deba: prezio garestiak eta udako erabilera
Alazne Txurruka Debako alkatearen esanetan, etxebizitzaren arloko arazo nagusiak dira "prezioen igoera eta urte osorako alokairuko etxebizitzen eskaintza urria". Euskal kostaldeko beste herri askotan bezala, "etxebizitza ugari udan, oporraldietan edo asteburuetan soilik erabiltzeak zaildu egiten du herritarrek urte osoan bizitzeko etxebizitza bat aurkitzea". Udalaren datuen arabera, Deban 655 etxebizitza daude inor erroldatu gabe.

Egoera horri aurre egiteko, Udalak bi jarduera-ildo nagusi ditu: etxebizitza berriak sustatzea eta Deba bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzea. Lehenengoari dagokionez, Udalak aurten tasatutako 38 etxebizitza esleitu ditu, eta, horrez gain, aurreikusten du babes publikoko etxebizitza gehiago egitea Amillagako eremuan.

Bestalde, Txurruren ustez, Deba eremu tentsionatu izendatzea "funtsezko tresna izan daiteke datozen urteetako etxebizitza-politika garatzeko". Ildo horretan, azpimarratu du Udalak gaur egun %75eko errekargua aplikatzen diela etxebizitza hutsei ondasun higiezinen gaineko zergan, merkatura ateratzeko "pizgarri" gisa. Alkatearen esanetan, neurri guztion helburua da "herritarrek Deban bizi izateko aukera izatea".

Soraluze: etxebizitza zaharrak eta espekulazioa
Unai Larreategi alkatearen arabera, azken 15-16 urteetan Soraluzen ez da etxebizitza berririk eraiki. "Etxebizitzen prezioak eta salmenta-irabazien marjinak behera egin dute Soraluzen, eta promotoreentzat errentagarriagoa da beste herri batzuetan eraikitzea", azaldu du Larreategik. Bestetik, azken hiru urteetan alokairuko prezioak "bikoiztu" egin direla salatu du: "Lehen hirurehun-laurehun eurotan zeudenak orain zazpiehun edo zortziehun eurotan daude". Gainera, alkatearen esanetan, "dinamika bat sortu da etxe zaharren inguruan; espekulazioa, alegia: herritar batzuek etxe zaharrak erosten dituzte, konpondu gabe oso prezio garestietan alokatzeko baliabide gutxi duen jendeari".

Horren harira, Udalak tramiteak hasi ditu Soraluze eremu tentsionatu izendatzeko, eta datozen hiru urteetarako plana prestatzen dihardu, baina, Larreategiren esanetan, "arazoa lurraldea antolatzeko eredutik dator, eta benetako konponbideak ere Lurralde Antolaketako ardura duen erakundearen eskutik etorri behar luke: Eusko Jaurlaritzarengandik". Alkateak espero du datozen hilabeteetan hastea Pascual Churrukan Jaurlaritzak egingo dituen 30 etxebizitzak, eta lanean dihardu Oleako gunea eraldatu eta etxebizitza berriak egiteko.

Etxe adosatuak Deban, hondartzako lehen lerroan. NEREA BEDIALAUNETA

"GARRANTZITSUA DA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ARAZO BAT DUGULA AITORTZEA"

ROSI CID, ERMUKO ALKATEORDEA

"OPORRALDIETAN SOILIK ERABILTZEAK ZAILDU EGITEN DU URTE OSORAKO ETXEA AURKITZEA"

ALAZNE TXURRUKA, DEBAKO ALKATEA

"SORTU DA ESPEKULAZIOA DEITU BEHAR ZAION DINAMIKA BAT ETXE ZAHARREN INGURUAN"

UNAI LARREATEGI, SORALUZEKO ALKATEA

Trantsizio Aktiboa iragartzeko irudia. 'TRANTSIZIOAKTIBOA.EUS'

Trantsizio Aktiboa proiektu pilotua garatuko dute Deban eta Elgoibarren

Erretiroa hartzear daudenei edo duela gutxi erretiratu direnei dago zuzenduta

Nerea Bedialauneta Alkorta

Trantsizio Aktiboa proiektu pilotuaren agertoki bihurtuko dira Deba eta Elgoibar datozen hiru hilabeteetan. Antolatzaileek zehaztu dutenez, helburu argi batekin sortu da: lan-bizitzatik erretirorako trantsizioa erraztea, etapa berri hori modu aktiboan, harreman-sareari eutsiz eta zentzuz bizitzeko tresnak eskaintzea eta, aldi berean, nahi gabeko bakardadea prebenitzea.

Zahar eta Gazte Elkarteak eta SECOTek bultzatutako ekimen berritzailea azaroaren 6tik otsailaren 3ra bitartean egingo da, Harian Estrategiaren barruan, eta asmoa da Gipuzkoako beste udalerri batzuetara zabaltzeko moduko esperientzia bihurtzea etorkizunean.

Zehaztu dutenez, erretirotik gertu dauden edo etapa berri horretan murgildu berri diren bi udalerrietako edonork egin dezake bat egitasmoarekin, edozein dela ere haren ibilbide profesionala eta jubilatuta daraman denbora. "Oro har, herriari zuzendutako ekimen bat da", nabarmendu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Formatu mistoa

Metodologiari dagokionez, proiektuak formatu mistoa izango du. Matia Fundazioaren bitartez banakako online prestakuntza eskainiko da, eta, aldi berean, bi udalerrietan aurrez aurre egingo diren esperientzia-laborategiak tartekatuko dira, parte-hartzaileen arteko harremanak eta trukea bultzatzeko.

Prestakuntza-programak, berriz, lau arlo nagusi landuko ditu modu integralean, pertsona bakoitzaren ongizatea bermatzeko: batetik, osasun emozionala eta mentala landuko dira, eta erretiroak dakarren identitate eta errutina aldaketara egokitzeko tresna psikologikoak eskainiko dituzte; bestetik, osasun fisikoa ere ardatz garrantzitsu bilakatuko da, eta ongizatea mantentzeko ohitura osasuntsuak, ariketa egokia eta nutrizio egokia bultzatuko dituzte; halaber, etapa berri horretarako kudeaketa finantzario eta administratiboak ulertzeko argibideak emango dituzte alderdi juridiko eta ekonomikoei esker; azkenik, harremanak eta konektibitatea jorratuko dira, sare soziala zaintzea eta komunitatean modu aktiboan parte hartzen jarraitzea helburu hartuta.

Bi taldetan

Antolakuntzari dagokionez, programa bi taldetan banatuta eramango dute aurrera: batak Deban garatuko du bere jarduera, eta besteak, Elgoibarren. Dena den, biek ala biek tokiko dinamikak eta topaketa bateratuak uztartuko dituzte, "esperientzien trukea eta lotura berriak sortzea bultzatzeko".

Asmoa da Gipuzkoako beste udalerri batzuetara zabaltzeko moduko esperientzia bihurtzea

Egitasmoari hasiera emateko ekitaldia azaroaren 6an egingo dute, 10:15ean, Elgoibarko Aita Agirre kultur etxean; bertan bi udalerrietako parte-hartzaileak elkartuko dira. Proiektua, berriz, 2027ko otsailaren 3an amaituko da, Deban egingo duten azken topaketarekin. Bitarte horretan, banakako online prestakuntza-saioak eta aurrez aurreko laborategiak egingo dituzte.

Proiektu berritzaile horren atzean hainbat erakunderen arteko lankidetza dago. Bizipoz kooperatibak diseinatu eta dinamizatuko ditu esperientzia-laborategiak, eta Zahar eta Gazte elkarteak eta SECOTek sustatuko dute ekimena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Adinberri-Hariak programaren finantzaketarekin. Debako eta Elgoibarko udalek, Osakidetzak eta Ikaslan Gipuzkoak ere bat egin dute proiektuarekin.

Izen-ematea

Parte-hartzea doakoa da, baina plaza mugatuak direla ohartarazi dute: "Bi talde osatuko dira, udalerri bakoitzean bana, bakoitza 15-25 pertsonakoa".

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, *trantsizioaktiboa.eus* webgunera jo daiteke, edo 646 26 30 50 telefono-zenbakira deitu.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa, bihar, Eibarren

Sei bertsolari igoko dira oholtzara, eta sarrera guztiak salduta daude; 17:00etan hasiko da saioa

Eibarren bihar arituko diren sei bertsolariak. BERTSOZALE ELKARTEA

Ainara Argoitia EIBAR

Eibarko Ipurua kiroldegian jokatuko da, bihar, larunbata, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa, 17:00etan hasita. Sei bertsolari arituko dira oholtzan kantuan: Alaia Martin Etxebeste, Asier Azpiroz Iztueta, Nerea Elustondo Plazaola, Nerea Ibarzabal Salegi, Miren Artetxe Sarasola eta Oihana Iguaran Barandiaran; eta Igotz Alkorta Irastorzak egingo ditu gai-jartzaile lanak. Sarrera guztiak salduta daude, baina sarrerarik eskuratu ez duenak ere izango du saioa zuzenean ikusteko aukerarik; izan ere, lehenengo finalaurrekoan egin zuten moduan, biharko kanporaketa ere zuzenean emango dute, *Bertsoa.eus* webgunean, ETB2 On katean eta ETB On plataforman. Era berean, igandean, *Hitzetik hortzera* telebista saioan bertsoaldi onenak emango dituzte, arratsaldeko hiruretan.

Lehenengo finalaurrekoan, Amets Arzallus garaile

Lehenengo fasea amaituta, joan den zapatuan jokatu zuten lehen finalaurrekoa, Larraun-Lekunberrin, eta Amets Arzallus Antiak batu zituen han puntu gehien: 746,5. Gainerako bertsolariak hurrenkera honetan sailkatu ziren: Beñat Gaztelumendi Arandia (733), Saioa Alkaiza Guallar (689,5), Xabat Illarregi Marzol (674,5), Xabat Galletebeitia Abaroa (664) eta Gorka Pagonabarraga Agorria (624). Larunbateko puntuazioa kontuan hartuta, abenduaren 5ean Bilbon jokatuko duten finalaurrekorako txartela eskuratu du Arzallusek.

Lanak, aldatuta

Bertsolariek egin beharreko lanak aldatu egin dira aurreko fasetik oraingora. Lehen bezala, binaka arituko dira: lehenengo zortziko handian eta gero zortziko txikian, hiruna bertso osatu arte. Gero, berriz, gaia emanda, puntuka egingo dute, zortzi bertso osatu arte. Ondoren, banaka eta gaia emanda, hiru bertso osatu beharko dituzte, nahi duten doinuan eta neurrian, eta, amaitzeko, binaka egin beharko dute hamarreko txikian.

Haitzuloetako lehoi baten eskeletoa aurkitu dute Mendaroko leize batean

'Panthera spelaea' espezieko 2-3 urte bitarteko lehoi ar baten eskeleto osoa da, eta 2023an aurkitu zuten Mutrikuko Burumendi Espeleologia Taldekoek, Ormolako Bide Ondoko Leizean



Eskeletoa, goitik ikusita, egindako fotogrametatik abiatuta. Garezurraren hondakinak, atzeko hanken hondakinak eta zenbait metatartso-hezur ageri dira argazkian. ARKEOIKUSKA ALDIZKARITIK HARTUTAKOA

Aurkikuntzan parte hartu dutenetako batzuk. BURUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

Ainara Argoitia MENDARO

2023ko martxokoa da aurkikuntza, eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroak urtero argitaratu ohi duen *Arkeoikuska* aldizkari espezializatuaren azken zenbakian dator jasota. *Panthera spelaea* azpiespezieko lehoi batena da eskeletoa, eta Mutrikuko BET Burumendi Espeleologia Taldekoek aurkitu zuten, Ormola Bide Ondoko Leizean –BETen katalogoan, OA-014 leizea–. Duela bi aste izan zuen argitalpenaren berri BARRENAk, baina diskrezioa eskatu zuten aurkikuntza gidatu duten paleontologo eta espeleologoek, zientzia kontuek berariaz eskatzen dutena, eta isilean gorde du agerkari honek, ikertzaileek esku artean zerabilten informazio berria behar bezala emateko aukera izan zezaten, baina iritsi da aurkikuntzaren berri beste zenbait komunikabidetara, eta hautsa nola zabaldu da sarean. Hala ere, datorren asteartean –hilak 3– dira aurkezpen ofiziala egitekoak, Irungo Gordailuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroan.

Ormolako haitzuloetako lehoi horren aztarnetako batzuk, "osoenak eta errazen atera zituztenak", Alberto Manjon Garciak aztertu ditu master amaierako lanerako (Giza Eboluzioko Unibertsitate Masterra, Burgosko Unibertsitatea), Asier Gomez-Olivencia eta Monica Villalba de Alvarado arkeologoen zuzendaritzapean. Zehaztu dutenez, lehoi erdi-heldu batena da eskeletoa, eta horixe du bereizgarri nagusia, Iberiar penintsulan ez delako hain lehoi gaztearen eskeleto osorik aurkitu aurrez. Lehoiaren letaginen zabalerak pentsarazten die arra zela, eta epifisien fusio mailatik kalkulatu dute 2 eta 3 urte artean izango zituela hil zenean –hezur luzeen mutur borobilduetako bakoitzari esaten zaio epifisia; hezurraren zati nagusi eta luzeenari, berriz, diafisia, eta biak dira garrantzitsuak animalia baten adina kalkulatzeko–. Izan ere, epifisiaren eta diafisiaren artean hazkunde-kartilagoa egon ohi da, zeinaren arabera luzatzen den hezurra, baina, behin animaliak hazteari uzten dionean, kartilago hori hezur bihurtzen da.

Burumendi Espeleologia Taldekoen aurkikuntza

Ormola Bide Ondoko Leizean galeria berri bat miatzen ari zirela topatu zituzten aztarnak Burumendi Espeleologia Taldekoek. Eskeletoaren zati handi bat anatomikoki lotua topatu zuten, baina aztarna batzuk askatuta zeuden hezurdura nagusitik, grabitatearen edota leize barruko ur jarioaren eraginez. Eskeleto osoa ez da berdin kontserbatu, beraz. Zati batzuk "osorik eta egoera onean" aurkitu zituzten, eta beste batzuk, berriz, "hautsita, bloke azpietan harrapatuta, pitzatuta, zatikatuta edota formazio espeleotemikoek erabat edo partzialki estalita". Hau da, kobazulo barruan uraren jarioak sortzen dituen egitura geologikoek estaliak.

Paleontologo, arkeologo, fotometrista eta espeleologo, guztira hemezortzi lagunek parte hartu dute aurkikuntzan

Kobazulorako sarrera ere ez zen lanerako egokiena, eta, aldizkarian azaldu dutenez, fotogrametria baliatu behar izan zuten aztarnak berreskuratu eta induskatzeko. Argazkiak erabilita, topatutako aztarnen eta inguruko azaleraren forma, dimentsioak eta kokapena zehatz-mehatz neurtzeko eta aztertzeko erabiltzen den teknikari esaten zaio fotogrametria. Gero, solte zeuden piezak aparteko konplikaziorik gabe atera ahal izan zituzten leizetik, poltsatxotan sartuta eta behar bezala ezaugarrituta, baina beste zenbait aztarna ateratzeko, adibidez lepoko ornoak eta garezurra ateratzeko, metodo mekanikoak erabili behar izan zituzten. Gazetan bilduta babestu zituzten haiek, eta kontu handiz atera zituzten, kanporatzean horma ukitu eta honda ez zitezen.

Indusketa-lanek abenduaren 2tik martxoaren 10era arte iraun zuten, eta guztira hamar aldiz sartu ziren kobazuloan indusketa-lanak egin eta aztarnak atera ahal izateko bakarrik. Aurretik, baina, beste hamalau alditan sartu ziren kobazulora, miaketa-lanak, balorazio arkeologiko-paleontologikoa eta fotogrametria egiteko. Zientzialariek Burumendi Espeleologia Taldekoek egindako lana goraipatu dute horren harira, haiek emandako jarraibideei eta prestakuntzari esker sartu ahal izan zirelako paleontologoak lehoiaren eskeletoa topatu zuten lekuraino. Guztira, hemezortzi lagunek parte hartu zuten aurkikuntzan: Asier Gomez eta Monica Villalba de Alvarado paleontologoek, Jexus Tapia arkeologoak, Euken Alonso fotometrian adituak eta espeleologoek: Burumendi Espeleologia Taldekoek eta Bittor Abendañok eta Pedro Intxaurragak.

NIRE USTEZ

Hormak mututu nahia!

IÑAKI AMUATEGI BASAURI
AEK-KO IRAKASLEA

Azkenaldian, etxebizitza negozioaren kontrako mobilizazio indartsuak ikusten dihardugu Estatu mailan; Puerta del Soleko kanpaldia horren adibide. Gurean ez daukagu *Puerta del Solik,* baina Euskal Herriko datuak ere eskandalagarriak dira; metro karratuaren prezioa Espainiako Estatuko Top10ean dago: batez beste, Donostian 5.326 euro/m², Bilbon 3.164 euro/m², Iruñean 2.682 euro/m² eta Gasteizen 2.535 euro/m². Hego Euskal Herriko lau probintziak daude garestienen artean: Gipuzkoan batez beste 3.490 euro/m² da prezioa, Bizkaian 2.738 euro/m², Araban 2.266 euro/m² eta Nafarroan 1.663 euro/m².

Etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri batean bizitzeko eskubidea aitortua dugu herritarrok legez; baina nafarrek soldataren %40 erabiltzen dute alokairua ordaintzeko, eta bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta arabarrek, berriz, soldataren erdia baino gehiago: %52. Aterpea ordaintzeaz gain, jan, jantzi, ikasi, dentista, okulista, mediku, psikologo eta abarrak ordaindu behar ditugu, jakina!

Etxebizitza ez da kapritxoa, bizi proiektu bat eraikitzeko ezinbesteko oinarria baizik

Soraluzeren kasuan, 2018tik 2023ra ia %20 egin du gora alokairuaren prezioak. Horrez gain, 2013-2023 urte arteko datuei erreparatuta, Debabarrenean, Gipuzkoan eta EAEn, oro har, lehen etxebizitza nagusi edo ohikoak diren etxeen kopuruak gora egin du. Soraluzen, ostera, alderantzizkoa da joera, %1,6 hazi da etxebizitza hutsen kopurua. Hazkundea txikia bada ere, esanguratsua da, EAEn Soraluze baita herri bakarra igoera izan duena.

Etxebizitza ez da kapritxoa, bizi proiektu bat eraikitzeko ezinbesteko oinarria baizik. Etxegabetzeak amaitu, espekulazioari mugak jarri eta etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko, sindikatuek eta hainbat eragile sozialek greba orokorrerako deialdia egin digute azaroaren 11rako. Egoera iraultzeko eta herritarron oinarrizko eskubideen defentsa egiteko kalera ateratzea beste aukerarik ez dugu. Kaleak duintasunez eta erantzukizunez hartu eta konplexu barik etxebizitza negozioa amaitzearen aldeko aldarria ozen entzungo da Euskal Herriko kaleetan ere.

Eta panorama horrekin, Soraluzeko azken udaltzarrean *Etxebizitza negozioa eten* dioen pintaketa izatea udal oposizioko alderdi nagusiaren kezka-iturri oso adierazgarria iruditu zait.

GUTUNAK

Gaur ere Kalegoen plazan elkartuko gara

SARE
ELGOIBAR

Azken hilabete luzeetan jorratu diren hausnarketak eta mezuak partekatu nahi ditugu oraingoan.
Atzean laga dugu bakartze erregimena; atzean utzi ditugu presoengan eta senideengan ondorio tamalgarriak izan zituzten urruntze eta sakabanatze politikak. Espetxe politika euskal administrazioek bere gain hartu dute –EAEn, behintzat–, eta hori ere asko laguntzen ari da egoera hobetzen.

Lortu dugu Europako beste estatu batzuetan betetako zigorrak hemen ere kontabilizatzea, nahiz eta benetako aplikazioa asko luzatzen ari den. Izan ere, oraindik sektore boteretsuak daude trabak ipintzen, euskal presoek ez dezaten beren bide propioa egin.

Presoen gaian egoera aldatzea lortzen ari gara. Egun, 112 inguru dira espetxean dauden euskal presoak, eta horietatik gutxi dira gaur egun kalea zapaldu ezin dutenak, baina badira batzuk oraindik ere. Espetxe politika arruntean sakondu eta epe motzean preso guztiak kalea zapaltzeko egoeran ikustea nahi dugu, eta ahalik eta azkarren etxera etortzeko moduan izatea denak eta betirako.

Iheslarien eta deportatuen auziari buruz ildo beretik gabiltza lanean, baina zailtasun gehiagorekin. Gogoratu nahi dugu Josu Lariz elgoibartarrak Euskal Herria utzi behar izan zuela 1984. urteko azaroan, eta oraindik ere ezin izan dela Euskal Herrira etorri.

Gaur, urriak 30, 20:00etan, Kalegoen plazan elkartuko gara, euskal presoen, deportatuen eta erbesteratuen eskubideak bermatuak izan daitezen eskatzeko. Bukatzeko, hasi agendan apuntatzen 2027ko urtarrilean Bilbon egingo den manifestaziorako data.

Gau Beltza, komunitate osoaren festa

A.I.
ELGOIBAR

Urriaren 31n, Euskal Herriko txoko askotan Gau Beltza, Gaba Baltza, Arimen Gaua, Animen Gaua, Arimen Gau Beltza... ospatuko da, eta horrek parada emango digu iluntasunak eta heriotzaren gaiak elkar beldurtzeko jolasean aritzeko.

Aspaldian, kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argiztatuta jartzen ziren, bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimei bidea erakusteko. Urteetan zehar galtzen joan da ohitura hori, egiten ziren ezagutza ere ia galtzeraino. Horietako batzuk berreskuratu eta berriak sortzeko ahaleginean, badira urte batzuk hainbat herritan berriz ere udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzen hasi direla. Herriz herri, bakoitzak bere izaera eta ezaugarriekin antolatzen ditu jaiak.

Elgoibarren, esaterako, 18:00etatik aurrera, Gaba Beltza ospatuko da gaur –egun bat aurreratu da–: atontze tailerra, aurpegiak margotu, danbor-joleak, ipuin irakurketa, txokolate-jana... Herriko hainbat establezimenduk ere parte hartuko dute: gozokiak banatuko dizkiete umeei, *Ziria ala saria!* jolasa eginez.

Euskal Herrian egin izan diren errituak jaso, egokitu eta berriz asmatzen ditu Gau Beltzak. Komunitatearentzat eta auzolanean sortutako ospakizun ugari ditugu gurean. Herritar guztien parte-hartzea eta ekarpena sustatzen dira horrela, eta komunitatea eraiki. Kontsumismotik at, berrerabilpena eta irudimena sustatuz, Gau Beltza komunitate osoaren festa izatea lortu behar dugu. Ondo pasa, eta kontuz ibili iluntzean!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez, Asier Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi Mendieta, Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako Udala · Elgoibarko Udala · Ermuko Udala · Mallabiko Udala · Mendaroko Udala · Mutrikuko Udala · Soraluzeko Udala · Debabarreneko Garapen Agentzia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

NONDIK NORA

"Bihotza hausten zait Ceutako irudiak ikustean; denok merezi dugu bizitza hobea"

YOULA LOUTY FALL
SAINT-LOUIS, SENEGAL

Duela zortzi urte etorri zen Euskal Herrira, senarraren ondora, zazpi hilabeteko alaba hartuta

Youla Louty Fall, Mendarozabalen, joan deneko zortzi urtean bizi den auzoan. LAGATAKOA

Ainara Argoitia MENDARO

Senegalgo ipar-mendebaldekoa da sortzez Youla Louty (Saint-Louis, Senegal, 1981). Senegal ibaiaren bokaletik 25 bat kilometrora dago Saint-Louis, bi kilometro luze eta 400 metro zabal den uharte batean, eta, batez ere, arrantzatik bizi dira, baina turismoak ere tira handia du; bereziki, 2000. urtean Unescok gizadiaren ondare izendatu zuenetik uhartea. "Hiri handia da Saint-Louis, bizia eta abegikorra, eta Dakarren aurretik Senegalgo hiriburu izan zen. Benetan da ederra. Joan beharko zenuke ezagutzera", dio jaioterriaren miraz Loutyk.

Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

Senarraren atzetik etorri nintzen. Ezkondua nengoen, baina senarra Euskal Herrian neukan lanean zazpi bat urtean. Hamabost urte baino gehiagoan dabil elektrikari lanean Mendaroko enpresa baten. Nire herrialdeko beste askoren aldean, bidaia erosoa izan nuen nik, senarrak zuzendu zizkidalako paperak hona etortzeko eta hegazkinez egin nuelako honako bidea. Askok, etsi-etsian, itsasoz etortzea erabakitzen dute eta mafien esku jausten dira. Oso bide arriskutsua da hori, eta inguruko guztiei esaten diet mesedez bide hori ez hartzeko, itsasoa baino hilerri handiagorik ez dagoelako munduan gaur, eta bizitza delako daukagun gauzarik baliotsuena. Bihotza hausten zait Ceutako irudiak-eta ikustean; denok merezi dugu bizitza hobea, eta inork ez jende horrek bizi duen kalbariorik.

Hiri handi batetik Mendarora. Nolakoa iruditu zitzaizun gure herria lehen begi-kolpean?

Eguna eta gaua bezain ezberdinak. Senegalera itzultzea desio izan nuen lehenengo unetik bertatik. 2018ko otsailaren 12an iritsi nintzen hona, negu gorrian, zazpi hilabeteko alabarekin eta 13ko beste alaba han lagata. Ez nintzen hemengo hotzera ohitzen, eta jendea oso itxia iruditzen zitzaidan Senegalgoaren aldean. Gu han familia handi bat gara, elkar ez ezagutu arren. Hori da gure kulturaren ezaugarria. Zuena beste kultura bat da, eta ulertu dezaket ezezagunari atea zabaltzea kostatzea. Poliki egin behar da hori.

Errutina bera ere gogaikarria zitzaidan hemen. Senarra lanean ari zen bitartean, nik etxean egon beharra neukan umea zaintzen, ordu askoan bakarrik. Euskal Herrian erditu nintzen hirugarren haurraz ere. Mutila jaio zitzaigun, baina jaio eta astebetera galdu genuen, eta kolpe hark jota laga ninduen. Alaba bat Senegalen gurasorik gabe; semea hilda... Baina gauza polit bat kontatuko dizut: lehenengoz hemen ikusi nuen elurra, eta liluratuta gelditu nintzen. Leiho ondoan jarri, eta kalera begira egon nintzen luzaroan, ipuin batean banengo moduan. Orain, lasaiago nagoenetik, ia dena gustatzen zait hemendik.

Gehien, zer?

Lanerako aukerak. Senegalen ere lana badago, baina hutsa irabazten da han. Hemen lan asko egin dut, baina orain, titulu soziosanitario ofiziala ateratzeko ikasten ari naiz, mendekotasuna duten pertsonei arreta emateko. Gustatuko litzaidake goizetan lau bat orduko lana topatzea, ikasten jarraitu ahal izateko. Gustatzen zait ikastea, eta asko gustatzen zait gure alaba hemen bertakotuta ikustea. Euskara ikasten ere hasi nintzen, talde bat sortu zutelako eguerdietan, umeak eskolan dauden denboran. Garrantzitsua da hori. Hala ere, zaila egiten zait euskaraz hitz egitea, ez diodalako ezagutzen ditudan beste hizkuntzen antzekotasunik hartzen. Frantsesa, ingelesa, wolofera eta gaztelania hitz egiten ditut, eta hitz batzuk euskaraz. Alabari laguntzeko eman nuen izena euskara eskoletan, eta eskola haiek balio izan zidaten lagunak egiteko. Euskara eta Tratu Onen Aldeko Taldea lagungarri izan zaizkit herrian jendea ezagutzeko, eta baita semea galdu ondoren nuen hutsunea betetzen laguntzeko.

> **"Senegalera itzultzea desio izan nuen lehenengo unetik bertatik"**

Zein garrantzitsua den babes-sareak sortzea, ezta?

Bai. Tratu Onen Aldeko Taldeko lagun batek joste tailerrera gonbidatu ninduen behin, eta gustatu egin zitzaidan, baina ez daukat halakoetarako astirik. Lan egitea da nire lehentasuna, baina oso inportantea iruditzen zaizkit aisialdiko talde horiek; bereziki, emakumeentzat. Egia da, hala ere, etorri berritan beste lehentasun batzuk izaten ditugu, urgenteagoak: etxea topatu eta ordaindu behar da, jan egin behar da, umeak hemengora lehenbailehen egiteko bidea egin behar da... Lan egin nahi izaten dugu, baina beti ez da erraza, ume txikien ardura izaten dugulako. Haurreskola eta eta zaintza zerbitzua oso garrantzitsuak dira herrian, emakumeok lanera lasaiago joan ahal izateko.

Hizkuntza eta kultura aipatu dituzu. Nola bizi duzue zuek zuena hemen?

Etxean saiatzen gara gure kultura transmititzen. Nik ez diot gurea denik onena, baina geuri dagokigu geurea zaintzea. Hala ere, ez diet aterik ixten beste kulturei, bizitzarako gauza baliagarri asko ematen digutelako beste kulturek. Etxean woloferaz hitz egiten dugu, baina alabak, askotan, euskaraz edo gaztelaniaz erantzuten digu, eta gustatzen zait, hura hemengoa ere badelako.

Zuen kulturatik gustatzen zait asko Olentzeroren etorrera eta Errege Magoen desfilea. Gustatzen zitzaidan asko, baita ere, Mendaron pare bat urtean egin zen kulturaniztasunaren jaia, eta gozatzen dut asko alaba santanetan danborradan ikusten. Perkusioak tradizio handia dauka Senegalen, eta gustuko dut alaba danborra zuen eran jotzen ikustea. Pozik ikusten dut hemen, eta ez dago hori baino gauza handiagorik ama batentzat. Birritan izan da Senegalen alaba [9 urte ditu]. Lehenengoan, beste mundu bat iruditu zitzaion eta arraro begiratzen zien denei, eta, bigarrengoz gindoazela esan nionean, ez zuela nahi esan zidan, baina gero, itzuli nahi ezta egon zen. Senegal zoragarria da, eta irakurleak animatuko nituzke hura bisitatzera.

50. urteurrena ospatu du Arreiturre Institutuko komunitateak

1976an zabaldu zuten Arreiturre Institutua, eta eguaztenean egin zuten 50. urteurreneko ospakizuna. Orain arte egindakoari begiratua eman, eta aurrera begira jarri dira, beste 50 urte betetzeko ilusioz

Ainhoa Andonegi

1976ko urrian ekin zion ibilbideari Arreiturre Institutuak, Eibarko Institutuaren adar bezala, hango Filosofia irakaslea zen Enrike Larrañagaren arduarapean. 77 ikasle izan zituen lehen ikasturtean, eta erreferente izan zen, bereziki, euskarazko hezkuntzan. 50 urte pasatu dira, eta 700 ikasletik gora ditu zentroak. Eguaztenean bildu zen institutuko komunitatea, Herriko Antzokian, urrezko ezteiak ospatzeko.

Atzera begira, aurrera egiteko

Ospakizun xumea bezain hunkigarria izan zen. Urteurrena jasotzen duen bideoa proiektatu zuten lehendabizi, irakasleen eta ikasleen testigantzekin. Ondoren etorri ziren aitortzak: Pili Beceiro eta Agurtzane Bastida izan ziren oholtzara igotzen lehenengoak, eta lore-sorta bana jaso zuten, hainbeste urtetako lanagatik. Gero, urteurreneko kanta abestu zuten: Uxue Alberdik jarri dizkio hizkak kantuari, eta Elaia Etxanizek eta Maialen Arriolak sortu dute musika. Mariñe Sotilek kantatu zuen, Patxi Zabaletarekin, Jesus Jimenezekin eta Jon Gurrutxagarekin batera.

Ekitaldiko unerik hunkigarrienera iritsi zen hala, Iñasio Garmendia ekarri zuten-eta gogora. Garmendiak euskarari, kulturari, hezkuntzari eta kirolari eginiko ekarpena nabarmendu zuten. Aitzol eta Ane seme-alabak igo ziren oholtzara, eta gogoratu zuten aita begira izango zela une hartan, zegoen lekutik. Azkenik, Guraso Elkarteko Noemi Otegik, institutuko zuzendari Jone Agirregomezkortak eta Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak ere hartu zuten hitza. Esker oneko hitzak izan zituzten guztiek, eta, aurrera begirako erronketan jarri zuten arreta. Beste 50 urte betetzeko ilusioz egingo dute aurrera.

Protagonisten hitzak, bideoan. A.O.

Pili Beceiro eta Agurtzane Bastida, zentroko irakasleekin. A.O.

Ikasleak eta ikasle ohiak, urteurreneko kanta abesten. A.A.

Aitzol eta Ane Garmendia, Lucia Etxabe eta Andres Alberdirekin. A.O.

Urteurreneko liburua banatu zuten. A.O.

Noemi Otegi, guraso elkartekoa. A.O.

Jone Agirregomezkorta, zuzendaria. A.O.

Maialen Gurrutxaga, alkatea. A.O.

Ekitaldiaren ostean, mokadutxoa egin zuten. A.O.

"Haurren emozioak ulertzeko eta haien bidelagun izateko lanketa egingo dugu"

DONNA APELLANIZ NIETO TERAPEUTA FORMATZAILEA ETA IKERLARI EMOZIONALA

Ainhoa Andonegi

Atxutxiamaikak Elgoibarko Udalarekin elkarlanean prestatu duen familia proiektuaren barruan, umeen emozioak lantzeko hiru hitzaldi egingo ditu Donna Apellaniz Nieto terapeutak. Azaroaren 10ean izango da lehenengoa, 17:30ean, Aita Agirre kulturgunean. Beste bi saioak abenduan eta urtarrilean egingo dituzte.

0 eta 5 urte arteko umeen emozioak ezagutzeko tailerra emango duzu. Zer azalduko duzu, zehazki, saio horietan?

Haurren eta helduen emozioetan laguntzeko bidelaguntza-prozesuak egiten ditut, eta Elgoibarko hiru saioetan ere hori landuko dugu. Saio independenteak izango dira; hala ere, segida izango dute, baina ez da derrigorrez hiru saioetan parte hartu behar edukiak barneratzeko.

Zein da prestakuntza-saioaren helburu nagusia?

Haurren emozioak ulertzeko eta haien bidelagun izateko lanketa egingo dugu. Haurrak sentitzen duenari lekua ematen ikastea izango da helburua. Nik sekula ez dut hitz egiten haurren emozioak kudeatzeari buruz; nik erabiltzen dudan terminoa *bidelaguna* da. Kudeatzea produktibitateari lotuta dago, eta kudeatze horretan haurren emozioak tapatu egiten dira; ez dira baimentzen. Bidelaguna izateak, aldiz, esan nahi du umearekin egon behar dudala; lagundu egin behar diodala, alegia. Egitetik egotera pasatu behar dugu; izan ere, lanketa produktibitateari lotuta egiten badugu, ez dugu umea zaintzen. Ez umea, eta ezta gu ere. Historikoki erakutsi digute emozio batzuk ezin ditugula sentitu, eta kultura hori oso barneratuta daukagu. Ondorioz, oharkabean bada ere, gure jokabideekin sentimendu asko ezeztatu edo debekatu egiten ditugu. Prestakuntzan saiatuko gara emozioak baimentzen ikasten. Laguntze-prozesu horrek helduen emozioak ere ukituko ditu, jakina.

Donna Apellaniz Nieto. LAGATAKOA

Umeen emozioak ulertu ahal izateko, helduenak ere kontuan hartu beharko dira, ezta?

Bai; haurren emozioak laguntze horretan, askotan, helduen ezintasunak agertzen dira. Umeen emozio horiek helduengan eragin handia dute, eta hor agertzen dira nagusien emozioak. Ikasiko dugu gurasoen emozioekin zer egin daitekeen. Askotan, umeen emozioetan zentratzen gara, eta gureak ahaztu egiten zaizkigu. Nire esperientziak erakutsi dit ez baditugu gure emozioak zaintzen ezingo garela umeen bidelagun izan; ezingo ditugu behar duten moduan zaindu. Garrantzitsuena da gure emozioen kontzientzia hartzea, eta konturatzea, askotan, umeengan jartzen ditugun emozioak gureak direla, eta ez haienak.

> **"Umeak sentitzen duenari lekua ematen ikastea izango da saioaren helburua"**

Presaka bizi garen gizarte honetan, posible da hori guztia ikastea eta praktikan jartzea?

Askotan, errazena izango litzateke teknika bat *erostea,* baina ez dago denerako balio duen tresnarik. Arraina ematen badizut, afaldu egingo duzu egun horretan, baina arrantzan irakasten badizut, egunero afalduko duzu. Askoz garrantzitsuagoa da arrantzan ikastea, ez baitago mundu guztiari balio dion tresnarik. Nik zer behar dudan eta nire umeak zer behar duen kontuan hartuta, norberak behar duena bilatzea da bizitzarako baliagarriena.

Nolako saioak izango dira?

Informazio nahikoa daukagu gaur egun, eta nik ez dut jendea aspertu nahi beste informazio pila batekin. Saio praktikoak izango dira, kontzientzia eta agentzia garatzeko: *kontzientzia* da ohartzea; eta *agentzia*-k esan nahi du kontzientzia horren ardura hartzea. Norberak izan behar du bere bizitzaren agentea. Horretan asko laguntzen du zerk ez digun laguntzen jakiteak. Guztion artean landuko ditugu emozioak, hausnartuz eta kasu praktikoak landuz.

'Erritu bat herritzeko' solasaldia antolatu dute azaroaren 4rako

Ibañez eta Araolaza, hizlariak. SAREA.

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko gazteak neguko erritu baten inguruan antolatu eta komunitate euskaldun bat ehuntzeko solasaldia antolatu du Elgoibar (H)Errituz taldeak. Aritz Ibañez Luzarreta (Iruñea, 1979) eta Oier Araolaza Arrieta (Elgoibar, 1972) izango dira hizlariak. Dantzaria eta kazetaria da Lusarreta. Hainbat hedabidetan lan egin eta kolaboratu izan du –EITB, *Dantzan.eus, Berria,* Euskalerria irratia, *Gara, Entzun*...–, eta azken urteotan Euskokultur Fundazioarentzat Ondare Immaterialaren alorrean lanean ari da. Araolaza, berriz, euskal dantzari, antropologo, kazetari eta idazlea da. Doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan* tesia osatu zuen 2020an. Tradizioen bilakaera eta gizarte aldaketak herritarrei hurbiltzeko dibulgazioan ere badihardu. Azaroaren 4an izango da solasaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30ean hasita.

Bidezko merkataritza sustatzeko postua jarriko dute biharko ferian

Feriako txosna CD Elgoibarrek kudeatuko du oraingoan

A.A.

Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, Udalak eta Debemenek antolatuta. Ohi bezala, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da goizean goizetik, eta Artalde artisau taldekoek ere jarriko dituzte postuak, eskuz egindako produktuak saltzeko.

Horrez gain, bidezko merkataritzako salmenta postua ere jarriko dute. Bidezko merkataritza ohiko merkataritza-sistematik aldentzen den sistema solidario eta alternatiboa da, herrien garapena eta pobreziaren aurkako borroka helburu dituena, ekoizleei baldintza duinak bermatzeko. Marmeladak, txokolatea, arroza, pastak, kafeak, infusioak eta abar saltzen dituzte, bereziki.

Salmenta postua, Aita Agirren. A.O.

Txosna, CD Elgoibarrek

11:00etan hasita, herriko produktuekin ondutako pintxoak salduko dituzte txosnan. Oraingoan, CD Elgoibarrek kudeatuko du hura.

NIRE USTEZ

Non geratzen den denbora

ENEKO ETXANIZ
IKASLEA

Horma-irudi bat inauguratu dute iragan astean gure unibertsitateko campusaren aldamenean, Aretxabaletan. Felix Iñurrategi alpinista zenari eskainia da margolana.

2000ko uztailean hil zen Felix Iñurrategi, 33 urterekin, Himalaiako Gasherbrum II tontorretik beherako bidean amilduta. Hamabigarren zortzimilakoa zuten Iñurrategi anaiek ordukoa. Besteak beste, Everest entzutetsuan ere izanak ziren zortzi urte lehenago.

Planetaren garaiena zapalduta etxera itzultzean, ordea, ez dut uste bi anaiei Kurtzebarriko tontorra txiki geldituko zitzaienik. Eta horixe du, hain zuzen ere, balentriak pozgarri: herriko mendietan egindako bidea tontorrik eta garaienera eraman izana, handik itzulita, ostera ere beren bidera itzul zitezen.

Jar ditzagun gaztetxe edo areto txikiak orain herriko mendien lekuan, eta har ditzagun pabiloi handiak goi-menditzat. Aparretan dirudi uneotan olatuak, baina ez nuke esango urak bide hori oso berea duenik. Areago, euskal panorama musikalaren erakusleihotzat jotzen ari garen makroekitaldi hori zapalkuntza bati esker nagusitzen den eredu hegemoniko batekiko mendekotasunaren isla dela iruditzen zait. Botere-harreman horretan zapalduak garela ahaztarazten digu, gainera.

Uste dut ez garela ohartzen ari makroaren logika mikroa den hizkuntza baten markoan aplikatu behar horrek eragin diezagukeen kalteaz; pabiloi handietan gero eta musikari gehiagori lekua egin ahala, kontzertu programatzaile txikiei ezartzen ari garen oztopoez; estimuluz eta *hit*-ez jositako ikuskizunak kontsumitu ahala, talde apalago baten ordu eta erdiko kontzertu xume bat ikusteko galtzen ari garen gaitasunaz... Hots, goi-mendietako turistifikazioari bide ematen diogun bitartean, gure mendietako bideak jaten ari diren sasiez.

"Igo nazazu nire mendira, aurki dezadan bidea, askatu nadin zure loturaz, behar dezadan airea", idatzi zuen Jon Maia bertsolariak 2000. urtean, Felix Iñurrategi hil berritan. Gaur ere gure mendiak izan daitezke loturetatik aske arnasteko bideak.

KLIK

Oreinen orroa

ALBERTO LOYOLA
ARGAZKILARIA

Uda amaitu da, egunak laburtzen doaz, eta, lehen euriekin eta tenperaturen beherakadarekin, Monfragueko Parke Nazionalean orroa hasten da; izan ere, oreinen orroek udazkenaren etorrera iragartzen dute.



SEMAFOROA

Errespetatu aparkalekuak

"Autokarabanak herriko auzoetan aparkatzen ditugula kexatzen da jendea, eta, horren harira, nik esan nahi nuke bestelako ibilgailuek haientzako gordetako plazak erabiltzen dituztela askotan, eta, horren ondorioz, ez dela leku nahikorik izaten autokarabanentzat. DMP aparkalekuan hamar plaza daude autokarabanentzat, eta, askotan, beteta aurkitzen ditugu, bestelako ibilgailuekin. Horrenbestez, eskertuko nuke plaza horiek errespetatzea".

Asfaltatzen lanak errespetatu

Baserri bideetan egingo dituzten asfaltatze lanak errespetatzeko eskatu nahi nuke, azkenekoz gertatu zena errepika ez dadin. Bizikleten gurpilen orbana betikotuta geratu zen bide horretan, porlana biguna zegoenean gainetik pasatu zelako txirrindulariren bat. Azaroaren 2an hasiko dituzte baserri bideak porlanarekin zolatzeko lanak Borrajen eta Uba Txiki baserri inguruetan, eta auzokideok eskertuko genuke bidea erabat lehortu arte gainetik ez pasatzea".

"Anbulatoriotik San Rokera doan igogailuak sekulako zarata egiten du gora iristean. Golpe moduko bat ematen du, eta, gero atea ondo zabaltzen bada ere, askotan badirudi blokeatu egingo dela. Denbora da horrela dagoela, eta iruditzen zait egunen baten guztiz geratuko dela. Niri beldur handia ematen dit igogailuan harrapatuta geratzeak; beraz, eskertuko nuke beharrezko mantentze-lanak egitea, erabilera segurua izan dadin". Udaletik eskerrak eman dituzte inzidentzia hau jakinarazteagatik, eta gaineratu dute lehenbailehen emango diotela abisua mantenu enpresari konpondu dezan.

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58

Gaba Beltza ospatuko dute gaur arratsaldean Maalako parkean

Ainhoa Andonegi

Gaba Beltza ospatuko dute gaur arratsaldean, Maalako parkean. 18:00etan, atontze tailerra egingo dute, eta umeek aurpegia margotzeko aukera izango dute bertan. 19:30ean, argiak itzaliko dituzte, eta iluntasunak hartuko du parkea. Zuziekin iritsiko dira danbor-joleak, mozorrotuta, eta, segidan, ipuin irakurketa saioa egingo dute. Alex Etxegibel eduki-sortzaile elgoibartarrak Naiara Martinek idatzitako *Kanela, kalabaza eta gatxak* liburua irakurriko du. Amaieran, txokolate beroa banatuko diete herritarrei.

Elgoibarko Udalaren laguntzarekin antolatu du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak Gaba Beltza jaia, eta beste hainbat eragilek ere parte hartuko dute aurtengo antolakuntzan, hala nola Egurrek, Txankakuak, Atabal danborradak eta Uluka Batukak.

Xanduli Manduli

Gaba Beltzeko ohitura bilakatu da umeek gozokiak eskatzea, *Ziria ala saria* jolasa eginez. Txankakua Merkatari Elkartearen bitartez, herriko hainbat establezimenduk gozokiak banatuko dituzte, 17:00etatik 18:00etara.

Iazko irudi bat. CABRERA

Udal Ludotekan ginkana egingo dute gaur, eta biharko, pintxo beldurgarrien lehiaketa antolatu dute. Ekintza horietan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da izena emanda egotea.

'Ama, amama, mamuak!' antzerkia, domekan, Herriko Antzokian

A.A.

Ama, amama, mamuak! antzezlana taularatuko du Naita Konpainiak domekan Herriko Antzokian. Arimen Gaua dauka obrak oinarrian: Martinen amama hil ondoren, Arimen Gaua hurbiltzean, haren barruko mamuak handitu eta galdera bat sortuko zaio buruan: "Non dago amama gau honetan?". Orduan, hildakoen eta bizidunen arteko abentura bati ekingo dio mutikoak.

Familian ikusteko antzerkia da. 55 minutu irauten du eta, besteak beste, laguntasuna, familia, heriotza eta halako gaiak jorratzen ditu. Sarrerak aurrez erosteko, *herrikoantzokia.eus* webgunera jo daiteke, eta, bestela, egunean bertan ere salduko dituzte, emanaldia hasi aurretik. 16:30ean izango da antzerkia.

Obrako irudia. SAREA

Debabarreneko orkestra Herriko Antzokian

JOSE RAMON CABRERA

Eskualdeko musikariz osatutako Debabarreneko orkestra sinfonikoak kontzertua eman zuen domekan Elgoibarko Herriko Antzokian. Iñigo Cearsolo musikari elgoibartarrak zuzendu zuen emanaldia, eta zazpi pieza jo zituzten. Orkestra horrek 2016an hasi zuen ibilbidea, eta Eibarren eman zuen estreinako kontzertua. Harrezkero, sei bat aldiz izan dira Elgoibarren; azkenekoz, 2024an. Domekako kontzertuan 22 musikari igo ziren oholtzara.

Anbulatorio berriko obren aurrean batu dira 24/7 Plataformakoak

A.A.

Leku berrian, baina aldarrikapen bera eraman dute kalera 24/7 Plataformako kideek. Anbulatorio berria eraikiko duten obraren aurrean egin dute elkarretaratzea aste honetan, eta berriro eskatu dute osasun-etxea pandemia aurreko ordutegira itzultzea: asteko zazpi egunetan 24 orduz zabaltzeko eskaera egin dute.

Asteazkenean egindako elkarretaratzeko argazkia. ASIER ORBEA

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657
Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

LAGUNAK
colchonería textil hogar
Diseinuzko mahai hedagarrietan eta aulkietan aukera zabala!
Eskatu aurrekontua!
San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!
HBB6376BK TEKA LABEA
299 €
A+
- 71 litro
- Air Fry Funtzioa
- Touch Kontrola
- Gida teleskopikoak
- 3 kristaleko atea
- Funtzio aniztasuna: 9 funtzio

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

"Ondo egindako egoitza" nahi du Duintasuna elkarteak, "eta berme guztiak izatea"

Mendi-hegalaren segurtasunari buruzko azalpenak eskatu ditu Duintasunak

Ainhoa Andonegi

Duintasuna elkarteak Urazandiko mendi-maldaren segurtasunari buruzko azalpenak eskatu dizkie Elgoibarko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta gardentasuna exijitu. Elkarteko ordezkariek azaldu dutenez, 2024ko abenduan idatzitako Errezabal egoitzaren behin betiko proiektuak ohartarazten zuen Urazandiko maldako lurra heterogeneoa zela. Ondorioz, zortzi zundaketa egitea eskatzen zuela gaineratu dute, maldari eusteko ainguraketak diseinatu aurretik. 2025ean hasi zituzten obrak, eta elkarteak erakundeei galdetu zien ea zortzi zundaketa horiek egin diren. Salatu dute oraindik ez dutela erantzunik jaso, eta gogoratu dute 2026an obrak geratu egin zituztela, "maldaren ezegonkortasunagatik".

Errezabal egoitzako obra. ASIER ORBEA

Hiru hilabete erantzunik gabe

Duintasunak kontratuaren dokumentazioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari uztailean, eta elkartekoek adierazi dute Aldundiak hamabost eguneko epea eman ziela enpresa eraikitzaileari eta Udalari, haien oharrak aurkez zitzaten: "Hiru hilabete igaro dira, eta Duintasunak oraindik ez du erantzunik jaso". Joan den irailean, elkarteak informazioa eskatu zion Elgoibarko Udalari ere: "Hilabete baino gehiago igaro da, eta Udalak ere ez du erantzun". Duintasunak bi erakundeei eskatu die eskatutako informazioa emateko eta zer erabaki hartu dituzten azaltzeko, baita erabaki horiek zer azterketa teknikotan oinarritzen diren argitzeko ere.

Era berean, auzokideekiko "gardentasuna" eskatu diote Udalari: "Irailean, Elgoibarko Udalak, proiektuko bazkidea den aldetik, auzokideei gardentasun osoz eta hurbiltasunez informatzeko konpromisoa hartu zuen. Duintasunak konpromiso hori bete dezala eskatu dio Udalari".

Horren harira, bi galdera zehatz egin dituzte: batetik, jakin nahi dute ea egin ziren proiektuak eskatzen zituen zundaketak; eta, bestetik, gaur egun malda horretan zer lan egiten ari diren jakin nahi dute: "Auzoko segurtasunari eragiten dioten galderak dira, eta erantzun argiak behar dituzte".

Ondo egindako egoitza

Duintasunak 2019tik defendatu du Elgoibarrek adinekoentzako "egoitza duina" behar duela. "Orduan, beste kokapen bat proposatu genuen; herrigunean, toki lasaian eta lorategi batekin. Egoitza txikiagoa eta herritarrengandik hurbilagoa ere nahi genuen", adierazi dute. Duintasunakoen iritziz, Errezabalek ez ditu betetzen ez kokapenari buruzko proposamen haren ezaugarriak, ezta tamainari buruzkoak ere. "Hala ere, eta dagoeneko eraikitzen ari direnez, ondo egitea eta berme guztiak izatea nahi dugu", esan dute.

Elkarteko arduradunen esanetan, 2024ko proiektuan zetorren ohartarazpen teknikoak "garrantzi berezia" hartu du 2026an lurzoruan antzemandako arazoen ondoren. "Nork erabaki zuen obrekin aurrera jarraitzea, eta zer azterketa teknikotan oinarritu zen erabaki hura?", galdetu dute. "Herritarrok erantzunak jasotzeko eskubidea dugu", gaineratu dute. "Egoitza guztiona da eta guztiongan du eragina".

Gazteen ongizate emozionala lantzeko azken saioa, hilaren 4an

A.A.

Gazteen eta nerabeen osasun mentala oinarri hartuta, lau hitzaldiko zikloa antolatu du Elgoibarko Udalak, *Zurrunbiloa* egitasmoaren barruan, eta datorren eguaztenean izango da azken saioa. *Kirola: ingurune segurua?* izenburua jarri diote azken hitzaldiari, eta Iñaki Alonso kirol-entrenatzaile eta Kuninako zuzendariak egingo du, gaztelaniaz. Aurrekoak bezalaxe, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da hitzaldia, 18:30ean hasita.

Iñaki Alonso. SAREA

Urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte

MIKEL ASKASIBAR

A.A.

80 urtetik gorakoen bazkaria izan zen joan den astean, eta bazkari hura baliatu zuten urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei aitortza egiteko. Hamahiru bikote izan dira: Casimira Gonzalez eta Francisco Antonio Moreno, Maria Victoria Agirregomezkorta eta Jose Luis Garaizabal, Maria Mercedes Mujika eta Jose Maria Zubia, Maria Raquel Martinez eta Agustin Prado, Consuelo Prieto eta Eduardo Oteiza, Amaia Escudero eta Juan Esteban Barrenetxea, Maria Isabel Aizpurua eta Pello Arrieta, Magdalena Sanchez eta Rafael Furner, Mari Carmen Ansola eta Jesus Mari Iriondo, Mari Cruz Letona eta Pedro Mari Urkidi, Rosario Eizagirre eta Elias Larrañaga, Mari Carmen Fernandez de Jauregi eta Miguel Angel Mujika, eta Maria Milagros Sanchez eta Julio Diez.

Iturrigorriko basoa ezagutzeko irteera antolatu dute azaroaren 8rako

A.A.

Gure natura ezagutuz egitasmoaren barruan, Oñati aldera egingo dute irteera azaroaren 8an, Iturrigorriko basora. Bisita gidatua izango da, eta Oñatiko Natur Eskolako kide Aimar Uribesalgo Urzelaik egingo ditu gidari-lanak.

Arantzazun hasiko da ibilbidea, eta autoz joango dira haraino. Urbiarako bidea hartuko dute, oinez, eta, horren ondoren, Pagoko Ama Birjina iturritik pasata, Urbiaranzko bide zaharrean gora egingo dute, Erroitegiko harkaiztian barrena. Iturrigorriko basora ailegatzean, hainbat baso-kudeaketa ikusteko aukera izango dute; besteak beste, LIFE proiektuko pago motzak. Jarraian, Gazteluaitz mendia (917 metro) igoko dute, eta inguruko basoen panoramika ederraz gozatzeko parada izango dute. Gailurretik beherako bidean, Arantzazuranzko bidea hartuko dute, eta Bellotzako kortatik pasatuko dira. Hain zuzen, hamaika kilometroko ibilbidea izango da, 440 metroko desnibel positiboarekin.

Izena eman behar da

Plazak mugatuak dira, eta aurrez izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Informazio gehiagorako: 665 75 98 71 edo *info@elgoibarkobasobiziak.org*.

Aitziber Olaizola bolariak irabazi du Euskal Herriko txapelketako bigarren tiraldia

Aramaioko Etxaguen auzoan jokatu dute txapelketako bigarren jardunaldia

Asier Orbea ELGOIBAR

Lehen jardunaldian garaipena lortu zuen semeari erreleboa eman, eta Aitziber Olaizola gailendu da Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo bola-joko txapelketaren bigarren jardunaldiko tiraldian.

Aramaion (Araba) jokatu dituzte Euskal Herriko Txapelketako lehen bi jardunaldiak, Untzillako bolatokian lehena eta Etxaguen auzokoan bigarrena; eta bietan gailendu dira San Migel taldeko bolariak. Talde eta etxe berekoak, lehenengoan Jon Ibarluzeak irabazi baitzuen tiraldia, eta joan den zapatuan jokatu zuten bigarrenean haren ama Aitziber Olaizolak lortu baitzuen garaipena. Olaizolak historian arrastoa utzi zuen duela bost urte, Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketaren 31. edizioa irabazita -estreinako emakumea izan zen irabazten-. Emakumezkoetan behin baino gehiagotan jantzi du txapela.

Olaizola nagusitasunez gailendu zen Aramaion, hiru jaurtialdietan zazpi txirlo botata; Bergara taldeko Asier Azkaratek eskuratu zuen bigarren postua, bost txirlo botata; Sebas Arantzabal elgetarrak ere bost txirlo bota zituen, eta hirugarren postuan sailkatu zen; Nahia Etxaburu (MX3T) markinarra sailkatu zen laugarren postuan, lau txirlo botata; etxeko bolari bat sailkatu zen bosgarren postuan, Kepa Etxebarria aramaioarra, lau txirlorekin. Guztira 84 bolari aritu ziren lehian Etxaguengo bolatokian.

Aitziber Olaizola, sari banaketan, Aramaion. BOLA-JOKORAKO EUSKAL FEDERAZIOA

Sailkapen nagusia

Behin-behineko sailkapen nagusian Jon Ibarluzea dago buruan, 8 punturekin, Asier Azkaraterekin eta Sebas Arantzabalekin berdinduta. Bikotekako sailkapenean, Jon Ibarluzeak eta Aitziber Olaizolak osatutakoa da liderra, 15 punturekin; Sebas Arantzabalek eta Gotzon Urangak baino sei gehiago dituzte.

Espainiako Golf Txapelketan lehiatu da Daniel Rino

Bosgarren mailan dauden golf jokalarien Espainiako Txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Madrilen, Golfeko Zentro Nazionalean. Daniel Rinok Euskadiko Txapelketa irabazi zuen irail amaieran, eta Espainiakoan ere sailkapenik onena eskuratu zuen euskal ordezkarien artean: hamabosgarren izan zen. Rino pozik dago lortu zuen emaitzarekin. Hala, ekainean hasi zuten txapelketen denboraldia amaitu ostean, hurrengo denboraldirako prestatzen hasteko asmoa duela esan du, aurten lortutako emaitzak errepikatu edo, ahal bada, hobetzeko.

Daniel Rino, Madrilen. LAGATAKOA

Alcorta, sailkapen buru Euskal Ligan

Sendo hasi du liga txapelketa Alcorta Forging Group eskubaloi taldeak, eta lider jarri da Euskal Ligan, lehen bost partiduak irabazita. Aurreko zapatuan 34-31 irabazi zioten Donostiako Saieko Grupo Seiprel taldeari, Olaizagan jokatutako partidan, eta Donibanek galdu egin zuenez, Sanlokoak bakarrik geratu dira lidergoan.

Senior mailako emakumezkoen lehen taldeak ere, Mikel Inmobiliariak, etxean jokatu zuen Euskal Ligako partida, baina 28-35 galdu zuten Bizkaiko San Adrian taldearen aurka. Senior mailako emakumezkoen bigarren taldeak, Deuko Izarrak, 25-22 galdu zuen Usurbilen; denboraldiko lehen porrota izan zen. Usurbildarrak dira liderrak orain.

Mikel Inmobiliariak Zarautzen jokatuko du asteburuan, eta Alcortak, Getxon, Erromoko Eskubaloia taldearen aurka.

Zumaiatik Zarautzera, mendiz mendi

MORKAIKO ME

Morkaiko mendi taldeak Elgoibarko Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean antolatutako mendi irteeren denboraldia hasi zuten domekan, Zumaiatik Zarautzera egin zuten ibilaldiarekin. Trenez joan ziren Zumaiaraino, eta handik oinez joan ziren Zarautzeraino, mahastietan barrena, Kantauri itsasoa alde batera eta Erlo eta Ernio mendietako bistak beste aldera zituztela. Eguraldi eguzkitsua lagun, paraje ederretan hiru bat orduko mendi-buelta egin ondoren ailegatu ziren Zarautzera. Bigarren irteera azaroaren 15ean egingo dute, Elosutik Pol-Polera.

Mendi Filmeko iazko film sarituak, Herriko Antzokian

A.O. ELGOIBAR

2026ko Bilbao Mendi Film Festivaleko alpinismoko eta eskaladako film onenen emanaldiarekin hasiko da Morkaikok antolatzen duen Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa, azaroaren 6an. 21:00etan hasita, bost film labur emango dituzte Herriko Antzokian: *Aldabide* (12 minutu), *Dear Superhero* (14), *Ephemeral* (32), *Cantos y Flores* (27) eta *Izarren Zaunka* (18).

Karakateko Igoerako izen-ematea, zabalik

Karakateko Igoeraren 32. edizioa ate joka da, eta aurten, berrita-

Emango duten film bateko irudia.

sun gisa, izen-emateak aldez aurretik egin ahal izango dira. *Kirolprobak.com* webgunean eman daiteke izena, eta han jarri dituzte araudia eta informazio guztia ere.

Herriko hainbat eragiletako ordezkariak, UEMAk egindako *Esnatu* kanpainaren aurkezpenean. AINARA ARGOITIA

Euskarak arnasa hartuko badu, konpromisoak hartzea derrigorra ikusten du UEMAk

'Zer ekarpen egiten dio zure erakundeak euskarari?' galdera egin die herriko eragileei UEMAk, 'Esnatu' dinamikaren baitan, eta azaroaren erdialderako konpromiso batzuk adosteko prestutasuna dute haietako batzuek

Ainara Argoitia MENDARO

Azken ikerketek eta datu soziolinguistikoek alarma guztiak piztu dituzte. Euskara larrialdi egoeran dago, "minorizazio gorrian", eta arnasguneen gainbeherak ez du etenik –hamar urte barru arnasgunerik gabe geratzeko arriskua dago–. Nabarmena da lurgune euskaldunen ahultzea, eta horrek, bistan da, larriagotu egiten du euskararen egoera orokorra. Eta, horregatik, "ezer egin ezean gainbeherak etenik izango ez duelako", egoera iraultzeko konpromisoak hartzera deitu ditu eragileak UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, *Esnatu* dinamikaren baitan. Urriaren 15ean aurkeztu zuen dinamika, Mendaron, UEMAko teknikari Ibon Aginagak, eta bileran parte hartu zutenek nork bere elkarte edo taldean euskarari egin diezaioketen ekarpena zehazteko eta konpromiso batzuk adosteko borondatea agertu zuten. Aurrerago herrian agerraldi bateratu bat egiteko aukera ere aipatu zuten bileran.

Ardura hartzeko eta konpromisoetarako garaia

Euskarak arnasa hartuko badu, konpromisoak hartzea ezinbestekoa da. Horixe da mezua, eta arrazoiak UEMAren eskariz Siadecok egindako *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria, 2026. Proiekzio demolinguistikoa* ikerketaren emaitzetan topa daitezke. Eremu euskaldunenaren gainbehera aurreikusten du ikerketak, arnasguneak ia galtzeraino. Hiru dira ondorio nagusiak. Bat: aldaketa demografikoa. Jaio baino herritar gehiago hiltzen da gaur, eta horrek euskararen indarberritzea mantsotzen du. Mendarora etorrita, iaz, 13 ume jaio ziren eta hamabost lagun hil. Beste datu bat: 2016-2020 urteen artean 85 haur jaio ziren herrian, eta 2021etik 2025era, 49 –Eustat-enak dira datuak–. Bi: euskararen gune trinkoak ahultzen ari dira. Euskal Herrian, euskal hiztunen %89,4 erdara nagusi den eremuetan bizi dira –2.454.002 hiztun–, eta %4,7, arnasguneetan, euskara nagusi den eremuetan. Eta hiru: euskararen erabilerari dagokionez, atzerapausoak agerikoak dira haur eta gazteen artean. 2001ean, 2-14 urte bitartekoen %18,7k euskara zuten lehen hizkuntza, baina, 2036rako proiekzioaren arabera, %13 baino ez dira izango. Aldiz, gaztelania lehen hizkuntza zutenak %70,3 ziren 2001ean, eta 2036an %60,2 izango direla aurreikusten da. Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez dutenak, berriz, %1,3tik %15,5era igotzea aurreikusten da 2036rako.

Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak herritarren %30 dira Mendaron: 482 guztira

Erdaraz euskaraz baino errazago

Udalerri euskalduna da Mendaro, euskaldunen indizeak %70eko gutxienekoa gainditzen duelako. Hala ere, erdaraz euskaraz baino errazago egiten dutenak gehiago dira. Hala ondorioztatu du UEMAk, biztanleria zentsuetatik, Inkesta Soziolinguistikotik eta Espainiako Institutu Nazionalaren inkestetarako datuetatik abiatuta. Mendaron, herritarren %30 dira euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak: 482 guztira. Aldiz, erdaldun elebakarrak, erdaldun hartzaileak eta erdal elebidunak 793 dira, hiztunen %49,5. Eta, jakina, hizkuntza bat erabiltzeko erraztasuna edo gaitasuna zuzenean dago lotuta erabilerarekin. Hala, kale erabilera neurtzeko egindako azken neurketa ofizialaren arabera –2021koa da–, euskararen erabilera %43,9koa da Mendaron, eta, uste askoren kontra, 2 eta 14 urte artekoek egiten dute euskara gehien kalean (%53,4); gutxien, berriz, 15-24 urte artekoek (%23,7). Datu kezkagarria da, eta, aurten kale erabilera neurtzeko lanetan aritu direnen pertzepzioen arabera, dezentez datu larriagoak azaleratuko dira, 2027ko udazkenerako espero baitira oraintsu egin dituzten neurketen ondorioak.

Horrenbestez, nagusitasun argirik gabeko udalerria da gaur Mendaro. Euskararen etxeko erabilera eta kale erabilera gurutzatuta ateratzen duten kalkuluan –erabilera sintetikoa– oinarritzen dira herri baten euskalduntasuna zenbatekoa den esateko. Hau da, udalerri bat arnasgune betea, erasana edo nagusitasun argirik bakoa den esateko –erabileran, euskararen pisua %40-60koa denean–.

Hurrengo pausoak

Euskararen alde zer egiteko prest dauden erabaki behar dute orain Mendaroko eragileek. Konpromisoak hartu eta UEMAk bere webgunean duen *Hartu konpromisoa* atalera igo daitezke, ahal izanez gero kanpainari babesa agertzen dion talde-argazkia gehituta. Nolanahi ere, urriaren 15eko bileran parte hartu zutenek Mendaron bertan kanpaina babesteko agerraldi bat egiteko aukera ere aipatu zuten. Bileran ez zuten ezer lotu, baina litekeena da datozen asteotan *Esnatu* kanpainara batu diren herriko eragileek elkarrekin agerraldi publikoren bat egitea, euskararen arnasa emateko ahaleginaren baitan.

Udaberriko saiotik ateratako ideia nagusiak

Udaberrian, UEMAk gidatuta Mendaron egin zuten batzarrean parte hartu zuten eragileetako ordezkariek hainbat egiteko zerrendatu zituzten, eta egiteko horietan zertan lagundu dezaketen aztertuko dute orain, nork bere etxean. Honako hauek ziren ideia nagusiak: euskaldun ahaldundu-kontzientziatuak sortzea, euskarak dena lortu duen ustea zabalduegi ikusten delako; transmisioa eta kontzientzia lantzea eta euskarari prestigioa ematea; hezkuntzatik eragitea, beti ere emozioetatik eta gozamenetik abiatuta, sinistuta handik baino ez dela lortuko jende bat euskarara gerturatzea; euskaraz bizitzeko eskubideak bermatzea; eta etorri berriekin hizkuntzaren gaia lantzea.

Esnatu ala hil

Lurgune euskaldunak sendotu, eta, horrekin, euskararen indarberritzea hauspotu nahi ditu UEMAk, eta, horretarako, euskararentzako Lurralde Estrategia aurkeztu zuen otsailean. Bi ziren helburuak: batetik, arnasguneak eta Mendaro bezalako udalerri euskaldunak babesteko legea artikulatzea; eta, bestetik, eremu euskaldunerako plan integral bat osatzea, askotariko eragileak bidelagun hartuta. Gero etorri da *Esnatu*, ardura eta erantzukizuna uztartzen dituen dinamika. Gaur egun, 120 udal biltzen ditu UEMAk eta 350.000 biztanleko lurgune euskalduna ordezkatzen du, eta udalerri horietan galdera bat egin die eragileei: *Zer ekarpen egiten dio zure erakundeak euskarari?* Azaroaren 26an egingo den ekitaldi batekin emango diote amaiera *Esnatu* dinamikari.

Rudigerrek hasiko du, gaur, barikua, 'Gararock udazkenean' kontzertu-zikloa

San Agustin aretoan izango da kontzertua, 22:00etan hasita, eta doan

Rudiger eta taldea. ARTISTARENA

Ainara Argoitia MENDARO

Lau kontzertu iragarri zituzten Gararock taldekoek udazkenerako, eta gaur, barikua, izango da lehenengoa: Rudiger. Felix Buff musikariaren proiektu musikala da Rudiger –Willis Drummondeko bateria-jolea eta beste artista askoren kolaboratzailea izandakoa–, eta haren hirugarren albuma besapean hartuta dator Mendarora, taldearekin: *Love is a muscle*. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 22:00etan hasita, doan. Antolatzaileek aurreratu dute taberna txiki bat jarriko dutela San Agustingo terrazan, 20:00etan, eta, jendea espero dutenez, kontzertura denborarekin joateko eskatu dute.

Maitasunak egituratzen du diskoa

"Rudiger da nire lekua, nahi dudana egiteko aske sentitzen naizen lekua", esana du Felix Buffek bere bakarkako proiektuaz *Science of noise* rock eta metal aldizkari espezializatuan, esaterako. Baita beste hau ere: "Nire sormen gaitasunak gidatzen nauen lekura joango naiz". Horregatik da zaila etiketatzea egiten duena, baina haren diskoetan folka dago, elektronika dago, psikodelia dago, popa, rocka... Baita orain artekoak baino bertsio argiagokoa den hirugarren disko honetan ere. Bada, nolanahi ere, ideia bat albuma egituratzen duena: maitasuna. Polarizazioak eta ziurgabetasunak markatutako garai honetan, maitasuna aldarrikatzen du Rudigerrek eguneroko erresistentzia modutzat. "Elkarrengandik gero eta urrunduago gauden munduan, maitasuna da elkartzen gaituena; maitasuna da enpatia edukiarazten diguna, atrofia saihestu eta ezagutzen ez dugunarekiko beldurrik ez izatea eragiten diguna. Oso politikoa den zerbait dago maitasunean", dio.

Bederatzi kantuko diskoa

Bederatzi kanturekin osatu du azken lan hori, eta albuma ixten duena, *Bi egun*, euskaraz sortu du –Anari Alberdirenak dira hitzak, Miren Amurizaren ahotsean–. Musikari askorekin lan egin izan du beti, eta disko horretan ere hala egin du. Honako musikari hauek kolaboratu dute harekin: Iban Urizarrek, Joseba Irazokik, Miren Narbaizak, Elena Setienek, Anarik, Vincent Bestavenek eta Antoine Philippek. *Love is a muscle* biniloan eta CDan dago eskuragarri Usopop Diskak-en webgunean –*Usupop.com*– eta Les Disques du Paradisen, baita *streaming* plataforma gehienetan ere. Hori bai, diskoa ez dago Spotifyn, artista ez delako plataforma horren praktikarekin eta politikarekin guztiz ados.

Deabru Beltzak taldearen *Su talka* kale-ikuskizunaren argazki bat. DEABRU BELTZAK

Pasabide beldurgarria, Deabru Beltzak eta 'Tarot madarikatua', Arimen Gauean

Hainbat eragileren artean ondu dute bihar arratsalde-iluntzeko egitaraua

A.A.

Indarra hartzen dabilen festa da hildakoak oroitzeko eta neguari hasiera emateko azaroaren 1aren bueltan han eta hemen antolatzen duten Gaba Beltza edo Arimen Gaua, eta Mendaron ere prest dute, biharko, hainbat eragileren artean ondu duten egitaraua. Arratsalde-iluntzez izango dira ekintza gehienak, eta bi txoko bereiziko dira herrian: txikienentzakoa frontoian eta gainerakoentzakoa San Agustin kulturgunean eta Galletiak Fabrik gozotegian. Hasteko, 16:30etik 18:00etara bitartean, galleta tailerra egingo dute frontoian. Era berean, aurpegiak margotzeko aukera ere izango dute haurrek, bai eta eskulanak egiteko ere horretarako egokituko duten txokoan. Aste osoan jardun dute ludotekan eta gaztelekuan biharko girotze ekintzak egiten eta mozorrotzeko apaingarriak sortzen, eta bihar erakutsiko dute emaitza.

Era berean, eta azken urteotan ohitura bihurtu den moduan, Arno guraso elkartekoek beldurrezko pasabide bat atonduko dute bihar, San Agustin aretoan, eta, ordubetez, mamuen, sorginen eta arima galduen artetik igarotzeko aukera izango dute ausartenek. 18:00etan zabalduko dute atea, eta 20:00etan itxi. Guztira, hogei bat lagunek parte hartuko dute ekintza horretan, eta aretoan bertan nahiz korridore zokondoetan egongo dira denak gordeak, mozorrotuta, hurbiltzen diren guztiak ezustean harrapatzeko gogoz.

San Agustingo atea itxi aurretxoan, 19:00etan, etorkizuna igartzeko kontsultategia zabalduko du azti kuadrilla batek Galletiak Fabrik-en sarrera zaharrean. *Tarot madarikatua* abizenarekin aurkeztu dute kontsultategia, eta pentsatzekoa da han ere beldurrak dantzan ibiliko direla asko. Atezainarekin batera beste lau lagunek parte hartuko dute ekintza horretan, eta etorkizuna igartzeko asmoz joaten denak espero bako mundu bat topatuko du bertan, antolatzaileek aurreratu dutenez. Ez dute, hala ere, zehaztasun gehiagorik eman, misterioa baino amu hoberik ez dagoela jakinda.

Gauean, Deabru Beltzak

Gauerako, berriz, Deabru Beltzak taldearen *Su talka* kale-ikuskizuna iragarri du Udalak. 22:00etan hasiko dute kalejira Deabru Beltzakoek, Herriko Enparantzan, eta kalean hara-hona ibiliko dira taldeko perkusio jotzaileak Momorrotxo mozorrotuta; Altsasuko Inauterien oihartzuna ekarriko dute Mendarora.

SAREA

Ipuin kontaketa

Haurren irakurketa klubeko gidari Lur Usabiagak *Kalabaza piztu* ipuin kontaketa saioa egingo du gaur, barikua, udal liburutegian, 10:30ean. Udal liburutegiak antolatu du saioa, LH1 eta LH2ko ikasleentzat eta aurrez ikastolakoekin hitz eginda.

Libe Solozabal eta Mariaje Izarra, Donostian, elkar ezagutu berritan. L.S.

"Arantza Cazalisek modu xumean kontatzen du hain konplexua den istorioa"

LIBE SOLOZABAL ETA MARIAJE IZARRA ARANTZA CAZALISEN MEMORIEN ITZULTZAILEAK

Hamahiru urtean zehar neska ermuar batek gerrako errefuxiatu bezala bizi izandakoak jasotzen dituen liburua itzuli dute, euskarara eta gaztelaniara

Ander Gomez

Arantza Cazalis Izarra 1929. urtean jaio zen, Ermuko Izelaieta kaleko laugarren zenbakian. 7 urte zituela, Espainiako gerra hasi zen, eta, gutxira, trena hartu eta ihes egin behar izan zuen herritik. Nerabezaroa herrialde batetik bestera igaro zuen –bidean familia galdu zuen–, harik eta Ameriketako Estatu Batuetan bizi izaten geratu zen arte. 2011n, errefuxiatu bezala izan zituen bizipenak jasotzen dituen *Growing up in a time of war* liburua argitaratu zuen. Iaz zendu zen, Seattlen, AEBetako Washingtongo estatuan.

Orain, liburua euskarara eta gaztelaniara itzuli dute, eta azaroaren 12an aurkeztuko dituzte bi bertsioak: *Gerra-denporan hazten* eta *Creciendo en tiempo de guerra*. Solasaldia 19:00etan izango da, Lobianon, San Martin Egunaren kultur agendaren baitan. Bertan izango dira egileak: Libe Solozabal Askasibar itzultzailea (Ermua, 1997) eta María Jesús Izarra Pérez irakaslea (Ermua, 1950) eta Cazalisen senide dena. Biek urtebete eman dute memoriak itzultzen, eta orain arteko harreman guztia posta elektroniko eta telefono mugikor bidez izan da. Joan den astean ezagutu dute elkar aurrenekoz, Donostiako Botanika kafetegian.

Noiz izan zenuten lehen aldiz esku artean *Growing up in a time of war* liburua?

Mariaje Izarra: Familia izan arren [aitaren lehengusina zen], ez nuen Arantza ezagutu. Liburua argitaratzean Ermura etorri zen, eta Jesu lehengusuari ale batzuk laga zizkion. Ni Bartzelonan bizi nintzen garai hartan, bisitan etorri zen behin, eta liburu horietako bat oparitu zidan. Ez nekien berba bakar bat ere ingelesez, baina itzultzaile automatiko baten laguntzarekin pixkanaka deszifratu nuen Arantzaren istorioa.

Libe Solozabal: Joseba Sarrionandia buru duen Durangaldeko proiektu batean parte hartzen dihardut. Artxibo- eta ikerketa-lan bat egitea proposatu zigun, euskaraz idatzita geneuzkan gauzen inguruan. Ermuarrek idatzitakoak biltzen hasi nintzen: *Drogetenitturri* aldizkariko testuak, liburuak eta bestelako argitalpenak. Liburutegira joan nintzen galdezka, eta, halako batean, esan zidaten: "Itxaron momentu bat, idazle bat daukagu... Ermuko emakume bat, baina liburua ingelesez idatzi zuena". Ekarri zidatenean, ezin nuen sinetsi esku artean nuena.

Zeinek abiatu zuen proiektua?

M.I.: Libe da honen guztiaren *erruduna,* guztia mugitu duena.

L.S.: Kontua da inguruan erakutsi nuela eta inork ez zuela ezagutzen. Polita iruditu zitzaidan haren haurtzaroa Ermuan, familia, herria... eta gerratik nola egin zuen ihes irakurtzea. Pentsatu nuen: "Ermuarrek istorio hau ezagutu behar dute". Amayari [Arantzaren alaba] proposatu nion, obraren eskubideak harenak dira eta. Oniritzia emateaz gain, prozesuaren parte izan da. Jakin-min handia du, eta une oro egon da laguntzeko prest.

Cazalis 2025eko apirilean zendu zen; proiektua aurrekoa edo ostekoa da?

L.S.: Ostekoa, tamalez. Liburua topatu nuenean bizirik zegoen, baina, kontaktua lortzera joan orduko, zendu egin zela jakinarazi ziguten.

M.I.: Bueno, ez genuen aurrez aurre ezagutzerik izan, baina ezagutu dugu, liburu honen orrialdeetan barrena.

Liburu bakarra du, haren memoria horiek. Zergatik idatzi zituen?

M.I.: Haren istorioa kontatzeko zuen blokeoarengatik. Osaba *Markina* [Gregorio Cazalis, Arantzaren aita] gerra ostean, preso egon ondoren, Ermura bueltatu zen bakarra izan zen, eta antzerako jarrera zuen. Isiltasuna biktima askok daramaten *jantzia* da. Aitak galdetzen zion ea zergatik ez zituen seme-alabak bilatzen eta bueltan ekartzen, baina hark beti zioen: "Ez ditut diktadura batera ekarriko". Arantzaren kasuan, seme-alabek askotan galdetu izan zioten haren bizitzari buruz, baina ezer gutxi kontatu edo gaiaz aldatzeko joera zuen. Behin, semeetako batek esan zion: "Agian, idatziz gero, errazago egingo zaizu". Eta halaxe egin zuen.

Bizitzako zein etapa hartzen du?

M.I.: Errefuxiatu bezala pasatako hamahiru urteko ibilbidea jasotzen du, Arantzak eta bere anaiek Ameriketako Estatu Batuetara ailegatzeko egindako bidea, Frantziatik, Dominikar Errepublikatik eta Mexikotik igarota. Liburua 18 urte dituenean bukatzen da. Senide batek etxean hartzen du, ikasteko aukera ematen dio eta bertan geratzen da. Hor bukatzen da odisea eta hor hasten da haren bizitza.

Odisea hartako zein pasarte iruditu zaizue gogorrena?

M.I.: 9 urtetik ia 15 urte bete arte bizi izan zituen galerak. Ihesean, ama galdu zuen bonbardaketa batean, eta Karrantzako kobazuloetan babestu ziren. Gero, Errepublikaren kontrolpean zegoen Kataluniako kolonia batzuetan egon ziren, eta anaietako bat hil zitzaion, tifusak jota. Horrez gain, neskak eta mutilak banandu egin zituzten gero, eta bakarrik geratu zen munduan, 10 urterekin.

L.S.: Liburua Ermuko lekuak eta eskola deskribatuz hasten da, eta, bat-batean, trena hartzen dute. Gerrak giro osoa zakartzen du, eta hark, ume baten ikuspegitik, nola bizi izan zuen kontatzen du. Oraintsu, *La bola negra* filma ikusi dut, eta asko konektatu dut horrekin. Baina, nire kasuan ere, amaren heriotzak markatu nau gehien.

M.I.: Deigarriena da zein soil kontatzen dituen horrelako bizipenak. Sentimenduak erabat

"Ez genuen aurrez aurre ezagutzerik izan, baina ezagutu dugu, liburu honen orrialdeetan barrena"

"Istorio zaharra da, baina ez dago zaharkituta, egungo pertsona baten bizitza izan liteke"

Estibalitz Gonzalez, Amaya Souarez eta Libe Solozabal Izelaieta, kalean, 2025ean, Arantza Cazalisen jaiotetxe parean. E.G.

Arantza Cazalis, liburua aurkezten, Ermuan. UDALEKO ARTXIBOA

gordeta daude, baita oroitzapenak ere.

L.S.: Alde positiboa da edonorentzako ulergarri bihurtzen duela. Arantzak modu xumean kontatzen du hain konplexua den istorioa.

Bizipen politak ere izango zituen bidean.

L.S.: Asko gustatu zait Arantzaren haurtzaroa, familia, lagunak eta lekuak ezagutzea. Musika eskolaren aurrean bizi zen, Izelaietan. Herria txikia zela kontatzen du, errekan arrantzan egiten zutela, perretxikotan joaten zirela, nola joaten zen eskolara, nolakoa zen plaza... Liburuak duela ehun urteko Ermua ezagutzeko aukera eman dit.

M.I.: Nik ezagutu nuen Ermua hura, 60ko hamarkadatik aurrera desagertzen joan zena. Dominikar Errepublikan egon zeneko pasartea gustatu zait niri. Aurretik, emozioak erreprimitutako nerabezaro bat islatzen da, baina bertan harremanak eraikitzea lortu zuen, eta liburuan lehen aldiz etorkizunari begirako itxaropen-izpi bat antzematen da.

Hemen geratu izan balitz erabiliko zituen hizkuntzetan idatzi duzue. Baina paradoxikoa da, aldi berean, bizipen horiek gabe ez bailitzateke libururik existituko.

M.I.: Gaztelera geratzen zitzaion, batik bat, baina ingelesa zen haren hizkuntza. Euskara izan zen haren ama-hizkuntza, eskolara joan arte ez zuen gaztelera ikasi, baina gerraren ostean ahaztu egin zuen.

L.S.: Itzulpen horien helburua izan da, alde batetik, jatorrira itzultzea, Arantzak hemen biziz gero idatziko zukeen bezala kontatzea; eta, bestetik, istorio hori Ermuan darabilgun hizkuntzetan irakurtzeko aukera ematea herritarrei. Euskararen kasuan, bertako euskalkian idazteko hautua egin dut nik. Bere garaian euskara batua ez zen existitzen oraindik, eta esperimentu polita iruditu zitzaidan.

Liburu bat idatzi duzuen lehen aldia izan da?

L.S.: Ni itzultzailea naiz. Orain, euskaltegian nabil irakasle, Kaltxangon; baina aurretik, gazteleratik euskararako itzultzaile egiten nuen lan. Hauxe da, ordea, liburu bat itzultzen dudan lehen aldia.

M.I.: Berdin. Nire esperientzia bakarra bizitza osoan hizkuntza eta literatura irakasle aritzea izan da.

Zelan egin diozue aurre erronkari?

M.I.: Esan bezala, nire kontu hasia nuen lana, eta itzulita nuen zirriborro hartatik ekin nion.

L.S.: Nire kasuan, Ermuko euskara dut ama-hizkuntza, baina erronka handia izan da, hala ere. Fernando Aranberri Euskara teknikariak gure euskarak dituen berbak, berezitasunak, patroiak... jasotzen dituen liburua du, 1999an kaleratutako *Ermuko euskerarako ortografia arauak*. Eta *Ahotsak* programa ere erabili dut, nagusiek audioz emandako testigantzak entzuteko. Gainera, Estibalitz Gonzalez izan dut bidelagun. Nik ekoiztu dut lana, baina hark erakutsi dit nola.

Emaitzarekin pozik?

L.S.: Oso. Baina ez dakit nola erreakzionatuko duen jendeak. *Drogetenitturri*-n euskalkian idazten nuenean, jende nagusiak eskertu egiten zidan; gaur egun, desberdina izan daiteke. Deskubritzeko irrikan nago.

M.I.: Ni Liberen bertsioa irakurtzeko gogotsu nago. Baina, kasu honetan ere, tarteka itzultzaile automatikora jo beharko dut... kar-kar.

Eskuragarri dago jada?

L.S.: Bai; enkarguz. Astebete pasatxo behar du etxera ailegatzeko, inprimatu eta bidali egin behar delako. Ermuan, Maribel eta Xiripot dendetan erosi daitezke. Bestela ere, edozein liburu-dendatan eskatu daiteke, ISBN zenbakia emanda [*Gerra-Denporan Hazten*, 9798999480446; *Creciendo en Tiempo de Guerra*, 9798999480422].

M.I.: Posible badugu, azaroan Ermuan egingo dugun aurkezpenera ale batzuk eramaten saiatuko gara.

Arantza Cazalis ez da bertan izango, baina haren parte handi bat bai, ezta? Ez memoriengatik, baizik eta konpainia izango duzuelako...

M.I.: Bai; alaba egongo da gurekin, Amaya.

L.S.: AEBetatik Bartzelonara eta Londresera etortzen da, noizbehinka, lanagatik. Kasualitatez, San Martinekin bat egiten du eta egitarau kulturalaren barruan sartu ahal izan dugu. Aurkezpenean hizpide izango ditu amari bere istorioa kontarazteko egindako ahaleginak, euskal kultura eta nortasuna familian, hizkuntzen galera eta berreskuratzea, Ermuarekiko lotura eta familiaren sakabanatzea erbestean.

Arantzak 2011ko azaroan aurkeztu zuen liburua, Ermuan. Zuek aurtengo azaroan aurkeztuko duzue; justu, hamabost urte geroago. Zergatik da garrantzitsua haren memoriak bizirik mantentzea?

L.S.: Hemen bizi garelako eta herriaren historia delako. Istorio zaharra da, baina ez dago zaharkituta, egungo pertsona baten bizitza izan liteke. Siriatik errefuxiatu etorritako ikasleak izan ditut, eta haien bizipenak ez dira oso desberdinak. Memoria demokratikoa eta historikoa behar ditugu gaur egun bizi dugun mundua ulertzeko.

M.I.: Oso garrantzitsua da iragana orainarekin konektatzea, dauzkagun arazoen ulermen-iturri da. Gerra zibil batek ertz eta albo-kalte ugari ditu. Batzuetan, zeinek zein hil zuen kontatzera mugatzen da, baina gauza asko galtzen dira bidean: ohiturak, musika... eta errealitate hori ez da uste bezain urruti geratzen. Bestalde, nire kasuak alde pertsonala ere badu. Aita oso kuriosoa zen eta, adibidez, beti izan zuen izeba Engraziaren [Arantzaren ama] gorpuzkiak topatzeko kezka, baina ez zuen lortu. Lan honekin pentsatzen dut: "Zein pozik egongo litzatekeen aitatxo nik hau guztiau egin izanagatik!".

San Martineko Bertso Jaialdia ospatuko da gaur, Ermua Antzokian

Lujanbio, iazko jaialdian. UDALA

Gaur, barikua, San Martineko agenda kulturalaren baitako bertso-saioa egingo da, 20:30ean. Maialen Lujanbio eta Irune Basagoiti ermuarra izango dira berriz ere taula gainean, eta haiekin batera izango dira Aitor Etxebarriazarraga, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Araitz Katarain, Mallabia ordezkatuz. Gai-jartzaile lanetan Maite Berriozabal berriztarra arituko da.

Sarrerak leihatilan eskuratu daitezke, 10 euroan. BARRENAk zozkatutako bi sarrera bikoitzen irabazleak Esti Arrizabalaga eta Lorea Perosanz izan dira.

Taloak prestatzen ikasteko tailerra, azoka egunari begira

2024ko ikastaroan. NORA GASTON

San Martin azokan dozenaka herritar pasako dira talo postutik, eta, urtero bezala, horiek egiten ikasteko tailerra antolatu du Euskal Birusa Elkarteak. Azaroaren 5ean izango da, 18:30ean, Malengo Elkartean. Plazak mugatuak dira –30 lagun gehienez– eta 16 gorakoek parte hartu ahal izango dute. Izen-emateak 3 euroko kostua du, eta, ikastaroa amaitzean, partaideek saria izango dute: egindako talo guztiak elkarrekin jateko aukera. Interesa dutenek *euskalbirusa@gmail.com* helbidera idatzi beharko dute, eguaztenean beranduenez.

Bi filmen grabaketek herriko hainbat kale eta inguru hartuko dituzte aste hauetan

Bi film luzeak datorren urteko uztailean iritsiko dira pantaila handira

Garazi Mendieta

Ermua zinema-plato handi bat bilakatu da aste honetan, eta halaxe jarraituko du azaroan zehar ere. Miguel Angel Blanco zinegotziaren bahiketa eta erailketa gertatu zirenetik hiru hamarkada betetzear direla, zinemaren industriak berriz jarri du begirada Debabarrenean.

Bi lan zinematografiko ari dira orduko gertaerak eta gizartearen erantzuna pantaila handira eramaten. Bi ekoizpenek herriko kale eta espazio adierazgarrienetan grabatuko dute, baina bakoitzak ikuspuntu zeharo ezberdin batetik heltzen dio gertatutakoari.

Grabazioek herriko hainbat kale eta plaza hartuko dituzte datozen asteetan, eta zenbait egunetan trafikoan zein aparkalekuetan eragina izan dezakete. Ekoizpen-taldeek eragindako guneak 72 ordu lehenago seinaleztatuko dituzte, eta kartelei arreta jartzeko eskatu diete herritarrei; bereziki, ordutegiei dagokienez.

El hijo de todos filmaren grabaketaren lehen eguna, Ermuan. ANDER GOMEZ

Hiru asteko grabaketak herrian

Asteartean, urriaren 27an, ekin zion lanari Alvaro Brechner zuzendariaren lantaldeak Ermuan. *El hijo de todos* izenburua duen filmak zinegotziaren familiaren bizi-esperientzia eta herritarren erantzuna ditu ardatz nagusi. Sony Picutres International Productions-ek aurkeztutako ekoizpena da, eta Bowfinger, Vaca Films eta Telecinco Cinema etxeen partaidetza du proiektuak. Aktore taldeari dagokionez, Pol Monen gazteak gorpuztuko du Miguel Angel Blanco; Laia Manzanares izango da Mari Mar Blanco; eta gurasoen paperak Maria Bottok eta Jose Luis Garcia Perezek egingo dituzte. Nabarmentzekoa da, halaber, Asier Etxeandia aktoreak Carlos Totorika orduko alkatearen papera beteko duela.

Filmaketak hiru aste baino gehiago iraungo du herrian, eta lehenengo egunetan Iparragirre kalean zein Abeletxe inguruan hasi ziren kamerak lanean, Miguel Angel Blanco bizi zen inguru hartan bertan, zinegotziaren bizilekuari lotutako guneak berreraikiz. Asteazkenean, Martxoaren 8a plazan aritu ziren lanean, eta atzo, Batzokiko frontoian eta Merkatu plaza inguruan ibili zen lantaldea. Gaur, ostirala, Orbe Kardinala plazan arituko dira lanean, eguerdiko hamabietan hasi eta 01:00ak arte iraungo duen saio batean.

Datorren astean ere erritmo biziari eutsiko diote; izan ere, azaroaren 3an, manifestazio handi bat berreraikiko dute, goizeko zortzietatik aurrera, udaletxe inguruan. Horren ostean, azaroaren 6an, kiroldegi inguruan arituko dira eszenak grabatzen. Azkenik, azaroaren 25ean eta 26an itzuliko dira herrira, udaletxean bertan barne-eszenak filmatzeko. Ekoiztetxeko lokalizazio-arduradunak azpimarratu duenez, eguraldiak egutegian eragin dezake, baina asmoa da data guztiak bere horretan mantentzea.

Azaroan iritsiko da bigarren proiektuaren filmaketa

Beste alde batetik, Felix Viscarren zuzendariaren *Blanco* lanak babes handia du atzetik, besteak beste, Nadie es Perfectoren, Euskadi Moviesen, RTVEren eta Netflixen partaidetzarekin, eta beste ikuspuntu bat proposatzen du. Filmak 1997ko uztaileko 48 ordu haiek berreraikitzen ditu, gertaera haren berri eman zuten kazetarien begiradatik. Aktore nagusien artean daude Mikel Bustamante –Miguel Angel Blancoren papera betetzen du–, Eneko Sagardoy, Jon Ander Urresti, Natalia Huarte, Carlos Scholz eta Lander Otaola.

> **Herriko hainbat txokotan arituko dira filmatzen, azaroaren amaierara arte**

Film luze horren grabaketa azaroaren 5ean egingo dute herrian, goizeko seietatik arratsaldeko zazpiak arte. Ekoizpen-taldeak Elorreta bidean eta herriko hilerri inguruan lan egitea du aurreikusita, nahiz eta beharren arabera lokalizazio horiek aldatu egin daitezkeen.

Bi film, 30. urteurrenaren atarian

Bi filmak 2027an iritsiko dira zinema-aretoetara, Miguel Angel Blancoren bahiketaren eta hilketaren 30. urteurrenarekin bat eginez. Felix Viscarreten *Blanco* uztailaren 9an estreinatuko dute; Alvaro Brechnerren *El hijo de todos*, berriz, hilabete berean iristea aurreikusten dute, nahiz eta oraindik ez duten data zehatzik jakinarazi.

Ermua bi ekoizpenen grabaketa-leku bihurtu da asteotan, eta herriko hainbat kale eta espazio 1997ko uztaileko irudiekin lotutako eszenatoki bilakatu dira. Datorren urtean ikusiko da pantaila handian egunotan herrian egiten ari diren lanaren emaitza.

17 kilometroko ibilbidea, erromes zaharren urratsei jarraituz

ESTIBALITZ GONZALEZ

Galiziako Zentroak antolatutako *Quedada no Camiño* ekimenaren bosgarren edizioa egin zuten zapatuan. Parte-hartzaileak Ermuan elkartu ziren, Ziortzako monasterioraino iristeko 17 kilometroko ibilbideari ekiteko. Antzinako erromesek jarraitutako bideari jarraituz, inguruko paisaiez gozatzeko aukera izan zuten.

Ekimenak erromesaldiaren tradizioa berreskuratzea eta natura taldean ezagutzea du helburu. Urtez urte, Galiziako Zentroak antolatutako hitzordu horrek herritar ugari elkartzen ditu, eta, bosgarren aldiarekin, Ermuan errotzen ari den ekimen horri jarraipena eman diote antolatzaileek.

Estankoaren gaineko etxe-horman jarri dute irudia. ANDER GOMEZ

Maria Txindurriren plaka. A.G.

Ibilbide laburreko familien talde-argazkia, plazako irteeran. A.M.T.

Maria Txindurriren irudia jarri dute bere izenez ezagutzen den plazan

Erdikokaletik Goienkalera zein frontoi hegalera joateko pasabidean dago kartela

Estibalitz Gonzalez

Erdikokalen, elkargune eta lagunarterako espazio ludiko bihurtutako eskailera, arranpa eta lau-gunetxo bat dituen plaza moduko hura *Maria Txindurri* izenez izendatzen hasi ziren gazte kuadrillak duela hiru urte. Izen bat jartzearen premia Udalak gune hura berriztatu zuenean ikusi zen, estankoaren eraikin zaharra bota eta frontis ondoko plaza nagusirako pasabidea zabaldu zuenean. Emakume izena jartzeaz hitz egin zen foro batzuetan; Juanita Ibaibarriaga, Erraketistak eta halakoak azaldu ziren. Udalari idatzizko proposamen zehatza egiteko asmoak horretan geratu ziren, ezerezean, asmo hutsean. Handik gutxira, modu naturalean, Maria Txindurrirena entzuten hasi zen.

Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi, *Maria Txindurri* gaitzizenez, 1906an jaio zen, Izelaieta kaleko Txindurrineko etxean; Domun Santu Egunean, domekan, 120 urte beteko zituen. Kontulari eta kantari aparta zuen Luzia ama, gaztetan inude ibilitakoa; bertsolaria zen aita, Gillermo, bat-batekoan zein idatzizkoan trebatutako armagina. Gurasoen zaletasunok heredatu zituen, Mariak eta ahozkotasunaren erreferente bihurtu zen, haien eta haren sasoiko bizimoduaren transmisore, Ermuko nolabaiteko kronista. Jario handiko komunikatzaile bikaina, irratian, telebistan eta bertako prentsan sarritan jaso zituzten haren bizipen eta testigantzak. Euskal Telebistaren eskutik, esaterako, XX. mendeko historia jasotzeko saio baten, ermuarra izan zen Bizkaiko ordezkaria.

Herri-kanten ezagutza eta haien transmisioa izan da haren legatuaren altxorretako bat, eta, zalantza barik, Inauterietako Hartzaren gaineko koplak, 1934an haren aitak sortutako lau ahapaldidun abestia, belaunaldi berrien artean bien izena betiereko bihurtu duena. Dantza taldeak ere haien omenezko izena darama.

Maria Txindurri 2006an hil zen, 100 urte bete aurretxoan, entzutez soilik ezagutzen duten asko ume zirela oraindik. Patxi plazak eta Balerioneko terrazek Patxi Zuazuak eta Balerio Gandiagak bertan zituzten taberna eta jatetxearen izenak betikotu dituzten moduan, erabileraren erabiliaz lortuko ote da Maria Txindurriren izena bere plazaren bitartez iraunaraztea? Momentuz, etxe-hormatik irribarretsu begiratzen du, pozarren, umeen eta gazteen bilgune bihurtu delako haren

Zabalik dago Inauterietako kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Garazi Mendieta

2027ko Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa martxan jarri dute. Parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dituzte lanak, Mundoarti plataformaren bidez.

Lehiaketa irekia da, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru kartel original aurkeztu ahal izango ditu. Lanek Inauterien ingurukoak izan beharko dute, eta *Carnavales de Ermua 2027ko Inauteriak* esaldia jaso beharko dute nahitaez.

Iaz, 232 lan aurkeztu zituzten lehiaketara, eta Edurne Cacho zaragozarraren proposamena aukeratu zuen epaimahaiak. 2027ko edizioan ere 600 euroko sari bakarra emango dute.



Iazko Aratusteetako kartela. E. CACHO

Berrogeita hamarna lagunetik gora Mugarriz Mugarriren ibilbide bietan

Ander Gomez

1998an egin zuten lehen aldiz Mugarriz Mugarri, Ermuak Eibar, Zaldibar eta Mallabiarekin dituen lurralde-mugak zeharkatuz herriari buelta ematen dion mendi-irteera. Iaz, Artarrai Mendi Taldearen 50. urteurreneko ospakizunen baitan, umeei zuzendutako ibilbide berezia egin zuten aurrenekoz. Arrakasta ikusita, ibilbide alternatibo ofizial bihurtzea erabaki dute aurten.

Hala, ume, guraso eta aitita-amama artean, berrogeita hamar herritarretik gora batu ziren zapatuan. 09:00etan abiatu ziren, Patxi plazatik, eta hiru orduko ibilbidean Urtiako industrialdetik, Mallamenditik eta Ongaraitik igaro ziren, Errekaldera ailegatu ziren arte. Hantxe, Artarraik prestatutako hamaiketakoa zuten zain, baita ibilbide nagusian parte hartu zuten mendizaleak ere, elkarrekin mokadutxoa hartzeko.

Azken horiek ordubete lehenago abiatu ziren plazatik, eta sei orduko txangoa egin zuten. Hasieran, Eitzagara jo eta Uretamendi zeharkatu zuten; eta Errekaldeko geldiunean, indarrak berritu eta Urkora igo ziren; azkenik, Elorreta Bidetik herrigunera bueltatu ziren.

Partaide guztiak batuta, 110 lagun inguru elkartu ziren Mugarriz Mugarri irteeran.

Ermua Blues eta Reala, elkarlanean

R.S. ZUBIETA

2012an, Ermuko umeentzako futbol eskola bezala sortu zen Ermua Blues taldea, eta, gaur egun, 23 talde eta 400 kide inguru ditu. Real Sociedadekin hiru denboraldirako hitzarmena sinatu du orain, eta Realaren klub hitzartuen sarearen parte izatera pasatuko da. Akordioa uztailean egin zuten publiko, eta joan den domekan, urriaren 25ean, Anoetan ofizialdu zuten, Jokin Aperribai presidentearekin batera argazkia ateraz.

Giro aparta eta pike sanoa Urriko Jaietan

Hilaren 23tik 25era, udako Andra Mari Jaiak kanpoan igarotzen dituzten herritarrak batu dituzte, beste behin, Urriko Jaiek; baita ingurukoak ere, txapelketaz, dastaketaz eta musikaz beteriko egitarau oparoarekin

Ander Gomez

Satxibu Aisialdi Taldeko kideek eman zieten hasiera jaiei. Ioritz Gisasolak eta Ibon Txurrukak irakurri zuten pregoia, eta eskerrak eman zizkieten duela 25 urte taldea sortu zutenei, urteotan bizirik mantendu dutenei eta gaur egun ezinbesteko laguntza eskaintzen dien Iraide Urresti Kultura teknikariari. Txupinaz gain, gozoki pila bota zituzten zerura, haurrek jaso zitzaten.

Gaztetxoak izan dira, hain zuzen, jaietako protagonista handienetakoak. Txupinazoaren aurretiko festa egin zuten, txistularien eta buruhandien kalejirarekin eta herri-kirolekin. Zapatuan, Duatloi Txikia izan zuten; eta domekan, *Magia Zaparrada* ikuskizuna, azkenean "gozoki zaparrada" bihurtu zena.

Nagusiak ere lehia ugaritan murgildu dira. Txupinak eztanda egin orduko, jendez bete zen elizpea, pilota txapelketako finala ikusteko. Mikel Solozabal-Koldo Pradera eta Xabat Uzuriaga-Unai Martin bikoteek neurtu zituzten indarrak, eta Uzuriaga eta Martin gailendu ziren (30-24). Solozabalek ez zuen txapela jantzi, baina *Pilotari Borrokalarixena* garaikurrarekin saritu zuten.

Elizpekoa ez da txapelketa bakarra izan, Kickboxing Gauaren eta Eslalomaren bosgarren aldiak jokatu dira, baita gizonezkoen frontenis maratoia ere, asteburu osoan. Bikoteka, Eloy Gonzalez burgostarra eta Diego Melguizo soriarra nagusitu ziren ligaxka orokorrean (18-7); eta Andoni Aldape mallabitarra eta Endika Romero durangarra eskualdekoan. Banaka, Aldape egon zen txapela lortzear, baina Jesus Dominguez iruindarra nagusitu zen (9-16). Mus txapelketak urruneko partaideak izan zituen, baina Mallabian geratu zen txapela, Txema Limiaren eta Angel Castroren garaipenarekin.

Lehiak, ordea, ez zituen mallabitarrak nekatu, eta karpan dantzan eman zituzten gauak, Oilar Beltzak, Mugi Panderoa, Corazon Oxidado, Nafarroa 1512 eta Naxker taldeen kontzertuetan. Egunez ere, Txorongo txarangaz, Kolpez Blai batukadaz eta Gazte Asanbladaren bazkariko bertso-saioaz gozatu ahal izan dute. Hain zuzen, otorduak izan dira egitarauko beste jarduera erakargarrienetako bat. Herri-bazkariaz gain, hanburgesatxoen dastaketa eta bederatzigarren ardo-feria izan dituzte; tripak ondo beteta amaitu dituzte festak.

Alferrik egin zuten ihes umeek buruhandiengandik. A. GOMEZ

Gazte Alai taldeko txistulariek piztu zuten festa, eskolatik parkerainoko kalejira eginda. ANDER GOMEZ

Gozoki eskean, txupinazo ostean. A.G.

Satxibuko kideek eman zieten hasiera ofiziala Urriko Jaiei. A. GOMEZ

Elizpeko Pilota Txapelketak bigarrenez hartu du Martin II.aren izena, eta Xabat Areitioaurtenak egin ditu epaile lanak. GARAZI MENDIETA

Gurasoak ere sartu ziren umeen herri-kirol lehian. A.G.

Kolpez Blai batukadak girotu zuen lehen eguneko iluntzea. G.M.

Ostikoka eta ukabilkada betean lehiatu ziren Kickboxing Gauean. G.M.

Bapo jan dituzte herritarrek prestatutako mini-hanburgesak. G.M.

Elegante Eguna beharrean, Peluka Eguna ospatzea proposatu dute aurten, eta bariku gauean koloretako ileordez bete zen karpa. G. MENDIETA

Herriko, eskualdeko eta Estatu osoko erraketistak etorri dira Gizonezkoen Frontenis Maratoia jokatzera. AD MALLABIA FT

Korrika zein bizikletan lehiatu dira umeak Duatloi Txikian. G. MENDIETA

Jatekoa ez da falta izan ardo-ferian. G.M.

Gazte Asanbladak 100 lagun batu ditu eskolako frontoiko herri-bazkarian. A. GOMEZ

Bazkalostean, Elorri Katarainek gidatutako bertso-saioa izan zuten. A. GOMEZ

Gazte Artaldeko txosnako kideak. A. GOMEZ

Zaparrada Elkartearen eta Gazte Asanbladaren txosnan. A. GOMEZ

Castro eta Limia, museko irabazleak. T.L.

Autoa, bi erruberatan, Goitondo Behekoa industrialdeko errepidean, Mallabiko Eslalomaren bosgarren edizioan. G. MENDIETA

Umeak aho-zabalik laga zituen Alain Zulaikaren magia-ikuskizunak. A.G.

Inoiz baino partaide gehiago batu dira aurtengo mus txapelketara: hamasei bikote, guztira. A. GOMEZ

Mamuek, arimek eta deabruek hartuko dute kalea bihar, Gaba Baltzean

Ibilbide Misteriotsuarekin hasi, gozoki-eskearekin segi eta Lekittoko Deabruen ikuskizun piroteknikoarekin borobilduko dute Gaba Baltzeko iluntze-gaua

'Mingorri' Lekeition egindako ikuskizunean. AINGERU BIDERRAUETA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Kandelez argiztatutako kuiak, mamuak, munstroak, arimak, istorio beldurgarriak, mozorroak, gozokiak eta Lekittoko Deabruak. Osagai horiekin guztiekin dator biharko Gaba Baltza, azken urteotan ume eta gazte askoren hitzordu gogoangarrienetako bat den Arimen Gaua.

Ibilbide misteriotsua

Eguna gautzen hasten den horretan abiatuko da Gaba Baltzeko lehen ekitaldia, Ibilbide Misteriotsua, 18:30ean, Plaza Barritik. Herrigunean ibiliko dira, hainbat txokotan gertu izango dituzte ikuskizunak, beldurrezko ipuinak eta beste sorpresa batzuk, eta Plaza Barrixan borobilduko dute ibilbidea, sutondoan beldurrak erre eta gaztaina-jana eginez.

Gozoki-eskea

Segidan hasiko dira umeen korrikaldiak, 19:30etik 20:30era bitartean izango baita gozoki-eskea –gozoki-emaileen zerrenda, taulan–, eta beldurgarri mozorrotuta handik hona joango dira, zeinek gozoki gehiago eskuratu. Ohitura horrek indarra hartu du azken boladan; Iratxo gozo-dendan, adibidez, iaz 220 umeri partitu zizkieten litxarreriak. "Urte osoan etortzen ez direnak ere etortzen dira", dio Itziar Agirrek.

Lekittoko Deabruak

Gaba Baltza borobiltzeko, argiak emendatu eta Lekittoko Deabruen suak piztuko du herria, 20:30ean. Aurten, *Mingorri* txakur beltz-mingainluze gorriduna ekarriko dute lekeitiarrek Soraluzera –zutabean haren kondaira–.

Gaixotasuna/herioa irudikatzen duen animaliak Luzifer eta bere deabru kuadrilla izango ditu lagun, dozena inguru. Zubi Nagusian hasi, Plaza Barri-elizpetik segi eta Plaza Zaharreraino egingo dute suaren eta txinparten kalejira-antzerkia, eta eurekin batera salto egitera, dantzara, korrikara eta suarekin jolastera gonbidatu dituzte soraluzetarrak: "Arropa aproposa jantzita –zaharrak, bakerozkoak, bururako txapela…–, beldurrik gabe etor daitezela ume, gazte zein heldu, ikuskizun parte-hartzailea da eta".

Igor Akarregi soraluzeartutako lekeitiar *deabruak* kontatu duenez, Soraluze "asko" gustatzen zaie: "Zubia, eliza-ataria, ibaia… Espazioak elkarren ondoan daude, eta askotarako ematen du horrek; antzerkia hainbat lekutan irudikatzeko oso herri aproposa da; iaz etorri ginen, eta oso gustura egon ginen".

Leku seguruak

Edozelan ere, suarekin jolastu barik bakarrik ikuskizuna ikusi nahi dutenendako leku seguruak egongo direla ere esan du Akarregik: Kontzejupea, Plaza Barriko balkoia eta Plaza Zaharreko arbolapea.

13 urteko ibilbidea

Lekittoko Deabruak herritik sortu eta hainbat belaunaldi batzen dituen taldea da. 50 urte ditu taldekide nagusienak eta 18 urte gazteenak. Aparte, gaztetxoak bakarrik dituen taldea osatu berri dute; beraz, harrobia ere badatorkie atzetik.

Herrialde Katalanetan tradizio handia duen *correfoc* kulturan dute oinarria Lekittoko Deabruek: "Han herri bakoitzean deabru taldeak daude; *correfoc* izenak dioen moduan, suaren inguruan korrika egiten dute. Ume ginela, oroitzapena dugu zelan katalanak azaltzen ziren Lekeition, deabru jantzita, suarekin, eta, beldur puntu horrekin, kaleko argiak emendatu eta herri guztia sutan jartzen zuten". Lekeitiarrak guztiz bereganatu zituen kultura horrek, eta behin aukera eman zieten Lekeitiko Kale Antzerki Jaialdian eurek ere halako ikuskizun bat egiteko. Harrezkero, dagoeneko 13 urte daramatzate eta makinatxo bat ikuskizun landu dute Lekittoko Deabruek; besteak beste, iazko *Akelarre* eta aurtengo *Mingorri*. Eta 2027rako, *Itsasoa* izeneko ikuskizuna prestatzen ari dira.

U.M.Z.

Domekan azaldu ziren lehen mamuak

Domekan, 100 bat lagunek parte hartu zuten Gaba Baltzerako prestaketa-tailerretan, 80 umek eta hamabi boluntariok –Pil-pilean, Atxolin guraso elkartea, Kukumixo, Udala, dantza elkartea…–. Gaba Baltzerako kantua, Buhameen dantza, mozorroak, apaingarriak, pizzak… denetik egin zuten.

Suaren bueltan, gaztainak janez bukatuko dute Ibilbide Misteriotsua, Plaza Barrixan

'Mingorri' pertsonaiarekin etorriko dira Lekittoko Deabruak, zapatuan, 20:30ean

Gozokiak non

- Iratxo gozo-denda
- Tanger saltokia (Musta)
- Txuritxu gozotegia
- Batzokia
- Txoko
- Pub Intxisu
- Arrano
- Bolia
- Edurtza
- Casa del Pueblo
- Gila

'Mingorri'-ren Lekeitioko kondaira

Mingorri Lekeitioko pertsonaia da. Izatez jatorri paganoa du. Baina XIX. mendean Lekeition izandako izurrite batek orduan berebiziko garrantzia zuten mahasti mordoa kaltetu zituen. Horri aurre egiteko, Mingorri bereganatu zuen Elizak, eta Aste Santuko prozesioko pasarte bat osatzen du. Prozesioan ateratzen dute, eta pauso horretan Heriotzaren laguna da. Mingorria deabruaren antzeko irudia da; ongiak gaizkiaren aurka egiten duen borroka sinbolizatzen du. Egurrezko gurutze batek, aldamenean sega duen eskeleto batek eta gurutzearen beheko aldean dagoen mingain gorri eta luzea duen herensuge batek osatzen dute Lekeitioko tradizioa.

"Gertuko eta konfiantza handiko jendea dago; hori ez da edozein lekutan lortzen"

BELEN LIZAUR MADINABEITIA SORALUZEKO ANBULATORIOKO ERIZAINA

la 20 urtez Soraluzeko erizain izan den Belen Lizaurrek erretiroa hartuko du abenduan, baina, jaiegunak eta bestelakoak tarteko, dagoeneko ez dago anbulatorioan lanean

Belen Lizaur Madinabeitia, Oñatin, astelehenean. U.M.Z.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Belen Lizaur Madinabeitiak (Oñati, 1962) abenduaren 2an hartuko du erretiroa; hiru belaunaldi soraluzetar zaindu ditu oñatiarrak, eta dio Soraluzetik oso oroitzapen ona gordeko duela.

Zenbat urtez izan zara erizain?

42 urtez. Nire ibilbide profesionala Zumarragako ospitalean hasi zen; han 8-9 urte eman nituen. Gero, Osakidetzako lehen oposizioetan plaza hartu nuen, Zaldibarko ospitale psikiatrikoan, 1990ean. Handik Galiziara joan nintzen; bost urtez egon nintzen. Bueltatu, eta Arrasateko Ospitalera joan nintzen. Eta handik, Soraluzera.

Zergatik Soraluzera?

Txandaka egiten nuen lan; txanda bako leku bakarrak ziren lehen arretako zentroak. Niretzat aukera bat zen hori; txandaka lan egiteari utzi nion, eta goizez bakarrik hasi nintzen. Nire bizitzan errutina izatea lortu nuen, eta horrek lagundu dit lanez kanpoko bizitza ona izaten. Soraluzera etorri nintzen, etxetik gertu neukalako. Bertan segitu dut, bukatu arte; aldatuz gero, Oñatira etortzeko aldatuko nintzen. Soraluzen oso gustura egon naiz.

Gustura, zergatik?

Mediku eta erizain guztiak berriak ginen, eta oso-oso lantalde ona egin genuen. Oso gustura egin dugu lan, oso gertukoa izan da. Soraluzetik oso oroitzapen ona eramango dut. Oso jende gertukoa eta konfiantza handikoa dago, eta hori ez da edozein lekutan lortzen.

Esan daiteke orain etapa bat itxiko dela?

Bai; datozenek lan egiteko modu desberdina izango dute. Beste belaunaldi batekoak dira eta beste lehentasun batzuk dituzte. Eta Osakidetzak berak ere aldatu egin du antolatzeko era.

Zein da aldaketa nagusia?

Osakidetzak mundu digitala sartu du, eta arreta telefonikoa. Hemendik gutxira, tresna digital gehiago sartuko ditu, eta horrek baldintzatu egingo du lan egiteko era.

> **"Tresna digital gehiago sartuko ditu Osakidetzak; horrek baldintzatu egingo du lan egiteko era"**

Adibidez?

Jende nagusiak nahiago du arreta presentziala. Baina belaunaldi gazteek, gauza askotarako, nahiago dute arreta telefonikoa edo digitala. Pentsatzen dute eraginkorragoa eta bizkorragoa dela, eta berehalako arreta hori nahi dute. Guk baheketa)kribatua) telefonoz egiten dugu, hor ikusten dugu arreta urgentea den ala ez, eta, horren arabera, txanda ematen dugu, akaso, hurrengo egunerako, baina orain hori ez dute onartzen, eta urgentzietara doaz; gainera, orain, Interneten begiratzen dute, baina gero ez dakite informazio hori zelan interpretatu, eta larritu egiten dira. Bestalde, dena ezin da telefonoz edo digitalki konpondu. Batzuetan, aurrez aurreko arreta derrigorrezkoa da, baina ez dute itxaron nahi. Eta, hemendik aurrera, proben txosten asko digitalki bidaliko dituzte eta medikuak esango du ea jarraipena egin behar den ala ez. Aurrez aurreko arreta gutxitu egingo da eta lan-karga administratiboa, berriz, gero eta handiagoa izango da.

Aldiz, geroago eta arreta gehiago ematen da etxeetan bertan, ala?

Bai. Lehen ere joaten ginen etxeetara, baina orain gehiago. Soraluzen jende oso nagusia dago, eta askok etxeetan egon nahi dute. Arreta hori oso gertukoa eta konfiantzazkoa izaten da, eta oso pozgarria. Gainera, etxeetara joanda, familiaren egoera ezagutzen duzu, eta hobeto lagundu dezakezu. Jendeak asko eskertzen du arreta hori, eta denok nahi dugu etxean zainduta egon. Osakidetzak ahalegin handiagoa egin beharko luke arreta horretan, ondo egiteko, ze gero eta gehiagok eskatuko dute.

> **"Medikuak gertukoak, ezagunak eta beti berak izatea ona da herriarentzat"**

Zure lanpostura bueltatuz, izendatu dute ordezkoa?

Bai, eta finkoa izango da. Elgoibarkoa da, eta, gainera, ezagutzen du zentroa, lehendik lan egin duelako hemen. Oraingo taldeak lantalde ona egin eta giro ona lortzen badu, langile horiek ez dira mugituko. Horrek herriari egonkortasuna ematen dio, gertutasuna, konfiantza lantzeko denbora... Hori da onena. Ona da medikuak gertukoak, ezagunak eta berberak izatea.

Eta zelan ikusten duzu anbulatorioa bera?

Hobetu egin daiteke azpiegitura aldetik. Komeniko litzateke beheko solairuan urgentzietarako eta botikinerako arreta emateko gunea sortzea; bestalde, pediatra bat egoten bada goiz osoan, zergatik ez dago erizain pediatriko bat goiz osoan?

Ibai-paisaiaren Plan Integralaren baitako lan-jardun publikoa

U.M.Z. SORALUZE

Soraluzeko Udalak jakinarazi duenez, Ibai-paisaiaren Plan Integralaren baitan, lan-jardunaldi bat antolatu du, herritarrentzat eta eragileentzat, azaroaren 7rako, zapatua.

Esan dutenaren arabera, "lan-jardunaldia mahai tematikoetan antolatuko da: konponbide zehatzetan, baldintzatzaileetan –etorkizuneko esku-hartze irizpideak–, egingarritasunean –baliabide ekonomikoetan eta giza baliabideetan oinarrituta–, alde guztiek hartu beharreko konpromisoetan sakontzeko". Hain zuzen ere, "jardunaldi luzea eta mamitsua izango da, baina atsedenerako eta jan-edanerako tarteak ere izango dira". Halaber, ohartarazi dute ekimenaren antolakuntza eta martxa ona bermatzeko aurrez izena ematea beharrezkoa izango dela.

Herri Antzokian egin dute hitzordua, 10:00etatik 13:00etara.

Ibilaldi didaktikoa

Ibai-paisaiaren Plan Integralaren baitan, apirilean beste ekimen publiko bat egin zuten: ibilaldi didaktikoa Deba ibaian. Hogei bat herritarrek parte hartu zuten, eta EHUko bi adituk gidatu zuten Olean hasi eta SAPAn bukatu zen ibilaldia.

Azaroko izen-ematea zabalduko dute Haurreskolan

Soraluzeko Haurreskolak jakinarazi duenez, domekan, azaroak 1, zabalduko dute bertan izena emateko azaroko matrikulazioa, eta izena emateko aukera izango da azaroaren 8ra arte. 2025ean eta 2026an jaiotako haurrentzako izen-ematea da, eta, esan dutenez, Haurreskolan abenduan hasiko lirateke.

Izena eman daiteke, online, Haurreskolen Partzuergoaren webgunean –*www.haurreskolak.eus,* baina azaroaren 1etik aurrera– Soraluzeko Haurreskolara bertara joanda –Frontoi kalea– edo telefonoz deituta, zenbaki honetara: 943 75 13 32.

Esandakoaren arabera, gaur egun sei leku daude libre Soraluzeko Haurreskolan, eta, azken ikasturteotan moduan, doako zerbitzua izaten segitzen du. Zerbitzuaren ordutegia, berriz, honako hau da: 07:30etik 16:00ak arte.

Gimnasioko aholkularitza zerbitzua oso harrera ona izaten ari da

Momentuz, abenduaren 23ra arte izango da aholkularitza zerbitzu hori

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Irailaren 15ean abiatu, eta lehen hiru asteetan 27 pertsonak erabili zuten gimnasioan ipini duten aholkularitza zerbitza. Athlon kooperatibako Leire Lasa (Bergara, 1986) aditua ari da zeregin horretan, eta, kontatu duenez, aholkularitza zerbitzua astean hirutan eta goizez zein arratsaldez eskaintzeak asko lagundu du erabileraren arrakastan. Horren harira, esan du jende gehien astelehen eta eguazten arratsaldeetan joaten ari dela.

Lasak emandako xehetasunen arabera, erabiltzaile asko joan zaizkio entzun dutelako gimnasioan badagoela pertsona bat aholkuak ematen. "Batzuetan, lotsa ematen die gimnasiora joateak, edo joan eta ez dakite oso ondo zer egin; halakoetan, aholkulari batek asko laguntzen du", dio.

Gaineratu duenez, orokorrean, jakintza falta da, "batez ere, indar makinetan, zeren eta kardio makinetan, gutxi gorabehera, makina erabiltzen jakinez gero, nahikoa da, baina indar makinetan, makina erabiltzen ez ezik, teknika ere jakin beharra dago".

Leire Lasa aholkularia, gimnasioan. U.M.Z.

50etik gora

Erabiltzaileen profilari dagokionez, "gehienak 50 urtetik gorakoak dira: neska asko, gizon pare bat...". Eta horien artean denetik dago, kirolari badirenak eta baita kirola egiten edo gimnasioa erabiltzen hutsetik hasi direnak ere. Erabiltzaile direnen kasuan, berriz, haiek joan dira "gauza puntualak edo zehatzak galdetuz".

Aholkularitza zerbitzuaren funtzionamenduari dagokionez, Lasak esplikatu du lehen bisitan ariketak egiten dituztela, hark lagunduta: "Gauza orokorrak; batez ere, makinak zelan erabili eta halterekin zein ariketa egin daitekeen ikasteko, eta teknika ikusteko". 45-50 bat minutu irauten dute saioek.

Gero, jarraitzeko interesa dutenei planifikazio sakonagoa egiten die, ikusita zein ariketa sartu dakiekeen eta zein ez; izan ere, zenbait bazkide lesioekin joaten dira eta ezin dituzte mugimendu jakin batzuk egin.

Lasak berak aholkularitza zerbitzua erabiltzea gomendatzen dio "ideia handirik ez duenari, gauza berriak ikasi nahi dituenari, makinak edo halterak erabiltzen ez dakitenei... eta, esandako moduan, batez ere, gorputzeko jarrerak zelan jarri ez dakitenei. Laguntza moduan halakoei dago bideratuta, hasieratik zerbait egiten hasteko moduan egon daitezen", esan du.

16 urtetik gora

Gimnasioko aholkularitza zerbitzua astelehenetan eta eguaztenetan 17:30etik 20:30ak arte eta martitzenetan 09:30etik 11:30ak arte ematen dute. 16 urtetik gorako edozein bazkidek eska dezake Leire Lasa aholkulariaren laguntza, momentuan bertan, aldez aurretik izena eman edo txanda hartu barik, esandako egun eta orduetan teknikaria gimnasioan bertan izaten da eta. Momentuz, abenduaren 23ra arte segituko du zerbitzuak.

Hilean behin, tailerra

Aholkularitza zerbitzuaren osagarri moduan, hilean behin tailer espezializatuak lantzen hasi dira. Horiek zapatu goizetara bideratuko dituzte, talde txikian egiteko. Lehena joan den zapatuan egin zuten, Inhar Ariznabarreta Muro aditua gidari zela; indar ariketak eta makinen erabilera landu zituzten, eta sei pertsona bertaratu ziren. Esan zutenez, tailerra asko gustatu zitzaien, eta beharrezko ikusten dute zerbitzu hori. Hurrengoa azaroan egingo dute.

Bihar, 350 lasterkari pasa abiatuko dira Antxintxikan

U.M.Z. SORALUZE

Bihar, urriak 31, Soraluze eta Bergara artean jokatzen den Antxintxika lasterketaren XX. edizioa egingo dute. Lasterketa entzutetsua da, eta jendetsua. Iaz 400 bat lasterkarik parte hartu zuten, eta aurten antzerako kopurua izango du kirol proba horrek; eguaztenerako, 350 lagun zeuden izena emanda, baina lasterketaren bezperara arte eman daiteke izena, eta kontuan hartuta hainbatek azken momentura arte itxaroten duela, 350 baino gehiago izango dira irteera-puntuan.

Esku bizikletan edo aulki gurpildunean (16:30), patinetan (16:45) zein korrika (17:00) egin ahal izango da lasterketak duen hamar kilometroko ibilbidea.

Soraluzetarrak ere saridun

Lasterketak sari ugari izaten ditu: lehen gizonentzat eta lehen emakumeentzat, talde onenentzat, patinatzaileentzat, esku bizikletan eta aulki gurpildunean onenentzat, baita soraluzetar bizkorrenentzat ere. Azken bi sari horiek, Soraluzeko emakumerik eta gizonezkorik bizkorrenak, Soraluzeko Udalak ematen ditu.

Irure baserri-auzoari buruzko liburua aurkeztuko du Francis Larrañaga egileak

Azaroaren 5ean izango da aurkezpen-ekitaldia, 19:15ean, Herriko Antzokian

U.M.Z. SORALUZE

San Andres, Ezozi eta Txurruka baserri-auzoei buruzko liburuen ondoren, datorren astean Irure auzoari buruzkoa aurkeztuko du Francis Larrañaga idazleak. Gure arbasoen ikerlari eta "jakinzaleak" azaroaren 5ean egingo du aurkezpen-ekitaldia, Herri Antzokian, eta interesa duen edozein bertara daiteke.

23 baserri

Aurrekoen bidetik, oraingoan ere liburu mardula ondu du Larrañagak. 338 orrialde ditu, A4 tamainakoak, eta 23 baserriri buruzko informazioa barnebiltzen du. Baserriotako hainbat dagoeneko ez dira existitzen fisikoki. Larrañagak aurreratu duenez, liburuak askotarikoak dakartza: informazio orokorra, Irure auzoko bizilagunei buruzkoak, bitxikeriak, baserrien arkitektura, antzinako argazkiak...

"Ordu askoren" emaitza da liburua, 23 urte eman baititu informazioa batzen. "Azken liburu honi forma ematen urtebete inguru pasa dut, baina, gainera, ez naiz bakarrik ibili, beste bi pertsonaren laguntza izan dut; haiek ere, ni bezala, modu altruista eta eskuzabalean", kontatu du.

200 ale

Irure auzoari berari buruz, berriz, Larrañagak dioen moduan, bizilagun gutxien dituen Soraluzeko baserri-auzoa da, eta, duen "geografia gogorrarengatik, ezezagunena; baina berdin esan daiteke auzoko bertako zenbait lekuri buruz ere".

Jakinarazi duenez, lehen aldi honetarako 200 ale argitaratu dira, eta aurkezpena eta salmenta aurreko liburuen modu berean egingo dira, aretoan bertan. Gero, Udalak jarriko ditu salgai.

Irure liburuaren azala.

Irure liburua Soraluzeko baserri-auzoei buruzko azkena izango da, baina, Larrañagak esan duenez, "inguruko baserriak ikertzen jarraitzen" du: "Elgoibarko, Eibarko, Elgetako, Antzuolako eta abarretako eskrituretan sortzen den informazio berria amaigabea da. Eta berdin balio du nire arbasoentzat eta nire familiakoentzat. Ildo horretan, beti daude erronka berriak; ikusiko dugu, hau ez dago amaituta...".

Prest dute guztia gaurik beltzena festa giroan ospatzeko, bai Deban, bai Itziarren

Asteburu osoa hartuko dute Arimen Gauaren eta Gaba Beltzaren bueltako ekimenek

Izaro Aulestiarte DEBA-ITZIAR

Arimen Gaua Deban eta Gaba Beltza Itziarren. Egitarau, molde eta izen ezberdinekin izan arren, badator udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan Europa osoan ospatu ohi den jaia, urtez urte indarra hartzen ari dena. Gaur, hilak 30, ostiralez, egingo dute ospakizuna Itziarren; Deban, aldiz, biharko iragarri dute ekitaldi nagusia, baina hiru egunez, igandera arte, egongo da zer ikusia eta zer gozatua herrian.

Itziarren, Burugorri Martxan-en eta Lizarbe Guraso Elkartearen artean ondu dute gaur arratsalde-iluntzerako aisialdi eskaintza, eta herritarrei festara batzeko, gaua girotzeko mozorroa janzteko eta ekintzetan parte hartzeko dei egin diete, Itziarren ere Gaba Beltzaren ospakizuna indartu nahian dabiltzala azpimarratuta. "Etxean dituzuen arropa zaharrak hartu, aurpegiak oihal zaharrekin tapatu, margotu edo zikindu... eta ekarri zuen etxeko kandela piztuta, bidea argitzeko!", adierazi dute antolatzaileek.

Hiru jarduera iragarri dituzte: HH2-LH3 bitarteko haurrei zuzendutako ekintza ludotekan –Kalebarreneko lokalean, 17:00etan hasita–; argazkilaritza tailerra LH4-LH6ko ikasleentzat –Apaiz etxean, 17:00etan–; eta parkera joan eta frontoian *Heriyo* noiz azalduko zain elkarrekin egoteko deialdia, herritar guztientzat, 19:30ean. Ondoren, ipuin-kontaketa saioa egingo dute, Tranpapean.

Zo-Zongo!! konpainiaren *Psycho clown* ikuskizuna. UNAI LIZARZA / ZO-ZONGO!!

Deban iazko *photocall* herrikoian ateratako talde-argazkia. N.B.A.

Deban, bestalde, bi ekitaldi izango dira gaur, urriak 30, aukeran: batetik, haurrei zuzendutako ginkana, udaletxe azpiko arkupeetan, 17:30ean, Zuhatza-Kolore Anitzen ekimenez; bestetik, piroteknia, perkusioa eta antzerkia uztartzen dituen *Psycho clown* ikuskizuna, kalez kale, 21:00etan hasita.

Debako ekitaldi nagusia, bihar

Nolanahi ere, biharko, hilak 31, iragarri dute ospakizun nagusia Deban. Goizean, *Beldurraren etxea* egingo dute gaztelekuan, 11:00etan, Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailetako ikasleei zuzenduta. Eta arratsalde partean iritsiko da ekimen herrikoi garrantzitsuena, asteotako beroketa-lanen ondoren.

16:00etarako jarri dute ordua, Kultur Elkartean, kaleak auzolanean apaintzen hasteko. 17:30ean, txokolate-jana eta makillaje tailerra izango dira zumardiko kioskoan, eta, ordubete geroago, 18:30ean, *photocall*-a egingo dute. Kioskoan bertan elkartuko dira *arimak* gero, 19:00etan, eta, *arima txikien* dantzaldiaren ostean, bertan emango diote hasiera *Arimen Ibilbidea*-ri; kioskotik abiatuko da, eta Lersundi, Plaza Zaharra, Ostolaza kalea, Portu kalea eta Foruen plaza zeharkatuko ditu; berriz ere Lersunditik Plaza Zaharrera joan, eta amaiera-ekitaldia egingo dute bertan.

Dantzaldirik ere izango da tartean, iaz bezalaxe, Kulunkaren eta Gure Kai eta Kalez Kale txistularien eskutik. Eta beldurren erretzeak, kontakizunak, irrintziek, txalapartariek eta Kalean Kantuzek biribilduko dute jaialdia.

Etzi, azaroak 1, amaituko da tokiko herritar eta talde ugariren elkarlanaren fruitu den egitaraua, gaztelekuan: 11:00etan, 4, 5 eta 6. mailetako ikasleei zuzendutako *Beldurraren etxea* egingo dute, eta ospakizunarekin lotutako film emanaldia izango da, 18:30ean.

QR kodearen bitartez ikus daiteke Deban ospakizuna iragartzeko zabaldu duten bideoa

Guillermo Dorronsororen hitzaldia Kultur Elkartean

I.A. DEBA

Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez, EAEko Kontzertu Ekonomikoari eta Nafarroako Hitzarmenari buruzko hitzaldia egingo du Guillermo Dorronsorok azaroaren 5ean, 11:00etan, Debako Kultur Elkartean.

Deusto Business School-eko dekano ohia da Dorronsoro, ekonomian aditua, eta Kontzertu Ekonomikoaren dibulgatzaile ezaguna. Eta gai hori izango du hizpide, hain justu, datorren asteko solasaldian. "Kontzertu Ekonomikoa zer den, bere jatorria zein den, estatuari egiten zaion ekarpena nola kalkulatzen den eta beste erkidego batzuen finantzaketa sistemarekin alderatuta dauden desberdintasunak ezagutzeko, ulertzeko eta argitzeko" hitzaldia izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Interesa duten herritar guztiei bertaratzeko gonbidapena egin diete.

Guillermo Dorronsoro. ZABALA INNOVATION

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak
Lersundi, 29 Deba
Tel.: 943 192 386

LOREA Taberna
PLATER KONBINATUAK, BOKADILOAK ETA GOSARIAK, ETXEKO KAZUELITAK, ESPEZIALITATEA ETXEKO TARTAK
Goizeko 7:00etan zabaltzen dugu
Angeles, 2 • Tel.: 943 191 095 • DEBA

Zumardi
pentsioa
DEBA
Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
pensionzumardi.com

Iturgintza · Berogintza · Gasa
Altzariak · Osagarriak
Mikel
Mobile: 699 975 206 · 695 781 109 · Tel.: 943 191 774
Hondartza, 10 · Iurreta · Deba · info@mikelburginteza.eus

ALBIZU
HARATEGIA
Lersundi, 27 · Deba
Tel.: 943 191 447
antzondoi@gmail.com

GALTXA
OKINDEGIA-GOZOTEGIA
Gurutze kalea, 5 DEBA
Tel.: 943 191 036

ierapnea
Lersundi Kalea, 6, 20820 Deba, Gipuzkoa
943 60 95 20 · ierapnea@gmail.com
@ierapnea

ATOZTE
KAFETEGIA
Entsalada, errazio hotz eta beroak, plater konbinatuak eta gosariak
Foruen Plaza • Tel.: 943 19 10 35
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ME ENDAÑETA
muebles altzariak
Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria
3000m²
Itziarko gaina
Tel.: 943 19 91 00
Fax.: 943 19 91 91
ITZIAR-DEBA
endaneta@muebleseendaneta.com
www.muebleseendaneta.com

Feriaren antolatzaileak, aurtengo hitzordua iragartzeko kartelarekin. N.B.A.

175 bat postu izango dira auzolanean antolatutako 31. Itziarko Perian

Azaroaren 1a egun seinalatua izaten da Itziarren, eta aurtengoa ez da gutxiago izango, antolatzaileen esanetan. Jendetza espero dute industrialdean, 09:00etatik 14:00etara egingo duten ferian, baina egitaraua iluntzera artekoa izango da

Izaro Aulestiarte ITZIAR

Urteroko tradizioari eutsiz, azaroaren 1ean, igandea, ospatuko da Itziarko Peria. Hogeita hamaikagarren aldia izango du aurten eta ohiko osagaiak izango ditu Itziarko Peria Batzordeak eta Itziarko Auzo Udalak ondutako egitarauak, baina berritasunik ere izango da; sasi-garbitzeko robot-makinarekin egingo duten erakustaldia, kasu.

Sustatzaileek aste honetan aurkeztu dute aurtengo ekimena. Gogorarazi dutenez, Itziarkoa "Gipuzkoan egiten den azokarik esanguratsuenetakoa" bilakatu da urteotan, eta inguruko herrietatik jendetza inguratu ohi da bertara urtero, industrialdean hartzen duen gunea betetzeraino. Hori ez da, baina, ezerezetik sortu; hiru hamarkadaz egindako lanaren emaitza da. Horregatik, orain arteko bidearen garrantzia azpimarratu dute, beste behin ere, antolatzaileek. "Azokaren eskaintza oparoaren gainetik, auzolanean sortu eta eraikitako eredua goraipatu nahi dugu. Izan ere, herritar ugari aritzen da ekimen horretan, egunean bertan banatzen diren eginbehar ugarietan ez ezik, aldez aurretik izaten diren bileretan eta prestaketa-lan luzean ere".

Produktu eskaintza zabala

Aurreko edizioen ildotik, 09:00etatik 14:00etara zabalduko dute azoka, eta bertan askotariko produktuak erosteko aukera izango dute bisitariek. Guztira, 175 postu inguru izango dira aurten, tokiko produktuak, artisau-lanak, arropak eta bestelakoak eskaintzen. "Bertoko produktuen aldeko apustua eginez, adibidez, artisau-postu ugari izango dira; tartean: burdina, egurra, zilar bitxiak, poltsak, otarregileak, pilotagileak, arrantzale-jantzi txikiak...", zehaztu dute.

Tokiko baserrietako produktuen gunean, bestalde, ez dute hutsik egingo Zortzikok –eztia–, Erlete Goikoak –txakolina–, Lizagazarrek –sagardoa–, Luzarok –sagar-dultzeak–, Irure Txikik –ogia–, Zeberio upategiak –sagarrarekin egindako bermuta–, Zumaiako artisau-garagardoek eta Ipar Euskal Herriko foie-produktuek.

Azokaren eskaintzaz harago, "auzolanean sortu eta eraikitako eredua" goraipatu dute antolatzaileek

Gainera, ohi legez, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako talogileak ere izango dira –Mungiakoak, Loiukoak, Segurakoak eta Ataungoak, besteak beste–, eta pintxo eskaintza ere izango da hainbat postutan.

Halaber, Gipuzkoako Baso Elkarteko teknikariek mahaia jarriko dute azokan, baso kudeaketari buruzko azalpenak emateko. Eta Itziarko Eskolaren aldeko tonbola ere jarriko dute, beste urte batez; inguruko produktuekin osatutako sariak egongo dira jokoan.

50 urte bete ditu industrialdeak, eta argazki erakusketa jarri dute Burugorri Ostatuan, etzira arte

Nobedade gisa, erakustaldia

Makineriari dagokionez, Gipuzkoako bost etxeren eskaintza ikusteko aukera egongo da igandean, beren traktoreekin, motozerrekin eta baserrirako era guztietako lanabesekin eta tresneriarekin. Eta, berritasun gisa, lehenbizikoz, sasi-garbitzeko robot-makinarekin erakustaldia egingo dutela aurreratu dute; 12:30ean hasiko da, azokaren aurreko zelaian. Gainera, Asteasutik ekarritako baserri-tresna zaharren erakusketa jarriko dute, eta Zestoako Caravan-Park animalientzako erremolkeak eta Ugarte Burdindegia baserriko tresnak ere izango dira ikusgai.

Ganadua, bueltan

Aurten, iaz ez bezala, animalia ugari egongo dira ikusgai feria-gunean, hala nola behiak, behorrak, hegaztiak, ardiak, ahuntzak eta poneyak. Hortaz, Itziarko Periak betiko esentziari eutsiko dio oraingoan. Izan ere, ekimena oso bestelakoa izan zen 2025ean; Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak abere azokak debekatu zituzten Hego Euskal Herrian, dermatosi nodular kutsakorrari aurre egiteko prebentzio neurri gisa, eta erabaki hark zuzenean eragin zion Itziarko feriari.

Oraingoa ohiko bidetik joango da, baina. Hainbat ganadu arraza ikusteko aukeraz gain, Aiako Indate Berri baserriko abere bitxien "inoizko erakusketa zabalena" izango da, eta Marques de Saka ganadutegiko poneyak eta txahal txikiak ere izango dira, 10:30ean eta 12:30ean, haurren gozamenerako. Bestalde, Euskal Herriko Sasi Ardien VII. Txapelketa egingo dute goizean, baita Gipuzkoako Ahuntz Azpigorrien VII. Txapelketa ere, eta sari banaketa ekitaldia 12:00etan izango da.

Pilota lehia eta erakusketa

Festa giroak arratsaldean izango du jarraipena, Zabalsoro frontoian, emakumezkoen esku-pilota lehiarekin. Emakume Master Cup Lau Eta Erdiko Txapelketa Nagusiko partida izango da, 18:00etan –sarrera, doan–. Mendizabalek aurrez Pasaian jokatuko den kanporaketa faseko irabazlearen aurka neurtuko ditu indarrak.

Bestalde, antolatzaileek gogorarazi dute Itziarko industrialdeak 50 urte bete dituela, eta horri buruzko argazki erakusketa azaroaren 1era arte izango da ikusgai, Burugorri Ostatuan.

Hobe garraio publikoan

Peria Batzordeak garraio publikoa erabiltzeko dei egin du, auto pilaketak saihesteko. Lurraldebusek zerbitzu bereziak eskainiko ditu Deba, Itziar eta Zumaia artean, eta Txitxarroko aparkalekuan ibilgailuak lagatzeko lekua egongo da; azoka gunerako, autobusak jarriko dituzte.

"Emaitzei dagokienez, denboraldia ez da izan gustatuko litzaidakeen bezalakoa"

UGAITZ ZENARRUTZABEITIA SURFLARIA

Zenarrutzabeitia, surfeko ohola eskuetan duela. ARKAITZ LAZKANO

Nerea Bedialauneta Alkorta

Denboraldiaren azken txanpan sartuta, eta Gipuzkoako Surf Txapelketan garaipena eskuratu berritan, Ugaitz Zenarrutzabeitia (Deba, 2009) surflari gazteak denboraldiaren errepasoa egin du, bizitako esperientziak eta lortutako emaitzak hizpide.

Duela gutxi, Gipuzkoako txapeldun izan zara gizonezkoen 18 urtez azpikoen mailan, eta Open mailan bigarren amaitu duzu. Pozik al zaude azken bi lorpen horiekin?

Oso pozik nago. Izan ere, denbora neraman txapelketarik irabazi gabe, eta horrek sekulako indarra eman zidan aurrera jarraitzeko.

Espero zenuen hain emaitza ona izatea?

Ba, egia esan, ez nuen burua txapela irabaztean jarrita. Argi dago irabazteko gogoa nuela, baina txapelketara disfrutatzera eta gauzak ahalik eta ondoen egitera joan nintzen. Azken finean, nire surf egiteko moduarekin eta lehiatzeko erarekin gustura sentitzea zen helburua.

Duela gutxi, Irlandan izan zara, EuroSurf Junior txapelketa lehiatzen. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia oso ona izan da. Nire iritziz, denboraldiko txapelketarik gogoangarriena izan da. Lehen aldia zen Espainiako Selekzioarekin parte hartzen nuela, eta, horrelako txapelketa batean maila handia egoten denez, besteekin alderatuta zein mailatan nagoen ikusteko eta, bide batez, asko ikasteko balio izan dit; horrek gehiago entrenatzeko eta gauzak ahalik eta ondoen egiteko motibatu nau. Emaitzari dagokionez, ordea, ez nintzen oso gustura geratu erakutsitako mailarekin; uste dut maila hobea eman nezakeela.

Zergatik?

Nahiko ondo joan nintzen prestatuta, eta han ere ondo sentitu nintzen surfean. Nire txandetan, ordea, ez nintzen oso ondo lehiatu; itsasoaren egoera eskasarengatik, espero baino lehenago kaleratu ninduten.

Selekzio gisa, gainera, talde-lan bikaina egin zenuten, eta zilarrezko dominarekin itzuli zineten.

Taldearekin oso gustura sentitu nintzen, eta, nire ustez, talde bikaina osatu genuen.

Euskalsurf zirkuituan ere parte hartu duzu.

Irailean Sopelan jokatutako proban laugarren geratu nintzen, baina Bakion jokatu zen azken bigarren proban ezin izan nuen parte hartu, Irlandan bainengoen, EuroSurf Junior txapelketan. Mundakakoa izango da azken proba, baina ez naiz sailkatu, Bakion parte hartu ez nuelako.

Denboraldia amaitzear zaude. Zer-nolako laburpena egingo zenuke?

Emaitzei dagokienez, denboraldia ez da izan gustatuko litzaidakeen bezalakoa. Pare bat emaitza on lortu ditudan arren, ez dut beste emaitza aipagarririk eskuratu. Dena den, surfean eta lehiatzen gustura nabilela aitortu behar dut, eta horrekin gustura nago.

Zehazki, zenbat proba falta zaizkizu eta zer helbururekin amaitu nahiko zenuke?

Astebete barru, Pro Junior mailako azken bi probak izango ditut, eta horiekin amaituko dut denboraldia. Lehenengoa Asturiasen izango da, azaroaren 5etik 8ra, eta bestea, Marokon, azaroaren 11tik 18ra. Txapelketa horietara lana ahalik eta ondoen egitera eta sailkapen nagusian postuak igotzeko asmoz noa. Egia esan, ez dut helburu zehatzik finkatu: nahi dudan bakarra da surfean ahalik eta ondoen aritzea eta lehiatzea, egindako lanarekin gustura geratzeko.

Eguraldia lagun, adin guztietako 600 lagun batu ziren II. Basotik Txirrindulari Festara

Izaro Aulestiarte

Bigarren urtez jarraian, herritarrek harrera beroa egin diote Basotik Txirrindularitza Festari, eta ekimena antolatzen duen BSTK Basotik Fundazioa esker oneko azaldu da joan den hilaren 24an ospatutako jardunaldiaren ondorenean, Debak "txirrindularitzaren, ongizatearen eta naturaren aldeko festa handia" hartu zuela nabarmenduta.

Eguraldi ona lagun, 600 herritar bildu ziren, eta iazko partaide kopurua gainditu zuen: Zikloturista Martxan 450 helduk parte hartu zuten –iaz baino ehun gehiago–, eta haurrei eta familiei zuzendutako Txirrindulari Txiki Festan, aldiz, 150 lagun izan ziren. Bi probak amaitutakoan, zumardia izan zen kirola, natura eta familia giroa uztartzen dituen festaren bilgune nagusia; ehunka herritar bertaratu ziren, bi bizikletaren zozketaz, pintxoez eta parrilladaz gozatzeko.

89 kilometroko ibilbidea osatu zuten Zikloturista Martxako partaideek. BASOTIK FUNDAZIOA

Bizikleta-ginkana, zumardian. BSTK

Giro onean Kalamuan eta inguruetan

BURDIN KURUTZ MENDI TALDEA

Talde-argazki ederrak laga ditu Burdin Kurutz mendi taldeak joan den igandean ikasleekin egindako mendi irteerak. 84 lagun batu ziren Kalamuara eta inguruetara egindako txangora, eta "goiz-pasa polita" egin zutela nabarmendu dute antolatzaileek. Guztira, zortzi kilometroko ibilbidea osatu zuten, Elgoibarko Idotorbe auzoan hasi eta Arraten bukatuta; Kalamuatik –irudian– eta Akondiatik ere igaro ziren mendizaleak.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Pertsonak zaintzen edo etxeak, lokalak, tabernak... garbitzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat. 602 89 35 69

Elgoibar. Garbitzaile lanak egingo nituzke etxeetan, lokaletan, tailerretan edo behar den lekuan. 642 71 26 10

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez zein arratsaldez lan egiteko prest. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. 660 51 17 81 / 943 74 23 30

BESTELAKOAK

Elgoibar. Erabiltzen ez dituzun kotoizko izara edo tela-zati zuririk badaukazu? Gustura jasoko nituzke. 643 49 91 69

Elgoibar. 11 eta 15 urte arteko nesken arropa salgai, egoera eta oso prezio onean. 39. zenbakidun oinetakoak Adidas, Morrison, Jordan... ere baditut. Arratsaldeetan deitu. Mila esker. 656 77 42 15 (Amaia)

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!

Galletiak FABRIK

ERMUA
Sara
Zorionak, Sara! Oso Ondo pasatu zure egunean. Asko maite zaitugu. Sorayaren eta Amatxoren partez. Muxu handi bat.

ELGOIBAR
Danel
Zorionak, txapeldun, urriaren 27an 5 urte potolo egin dituzulako. Muxu potolo bat, etxekoen partez. Asko maite zaitugu!



SORALUZE
Oier
Zorionak, Oier! Urriaren 22an, 35 urte! Zorte handia da egunero zure ondoan lan egitea. BARRENAko eta Pil-pileaneko lankideak.

ELGOIBAR
Thiris
Zorionak, Thiris! Infinitu maite zaitugu.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz *zorionagurrak@barrena.eus*. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57
sailkatuak@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

ELGOIBAR

Betirako gure bihotzetan.

ELGOIBAR

V. urteurrena

Agurtzane Unamunzaga Zorrozua

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

Zatoz, ametsetan, zatoz. Dantzatu gaitezen behingoz!
Zatoz esna, zatoz lotan, baina zatoz.
Nire min eta bizipoz, nire odol, nire bihotz.
Zatoz egun argiz, zatoz gauez, baina zatoz.

Maite zaitugu, ama.

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - *barrena@barrena.eus*

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / *barrena@barrena.eus*

OSTIRALA 30

- **ITZIAR Hitzaldi tailerra: 'Peri-menopausia osasuntsuak'** Aintzane Etxeberria nutrizionistaren eskutik. Izen-ematea: Itziarko harrera bulegoan aurrez aurre, 943 19 92 55 telefono zenbakira deituta edo *apuntatu@itziar.eus* posta elektronikora idatzita. Burugorri Gaineko lehen solairuan, 17:30ean.
- **MENDARO Matxismoaren gogortzeari aurre egiteko batzarra** Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimena, Itaiak deituta. Udaletxeko Otarre gelan, 17:30ean.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Barreterapia tailerra emakumeentzat*'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazken eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Tolarekua aretoan, 18:00etan.
- **DEBA Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa eta batzar irekia** 18:00etan, batzar irekia, Kultur Elkartean. 19:30ean, elkarretaratzea, Foruen plazan.
- **ELGOIBAR Literatura sorkuntza tailerra** Haizeak antolatuta, literatura sorkuntza tailerra egingo dute Jasone Osororekin. Gaztelaniaz. Ez da izenik eman behar. Lila emakumeen etxean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Txelo Aranguren margo erakusketa** Astelehenetik ostiralera, 18:30etatik 20:30era. Larunbat eta igandeetan, 12:30etik 14:30era. Azaroaren 22ra arte.
- **SORALUZE Hikafari-meriendak** Pil-pilean euskaltzaleen elkarteak antolatuta. Allegro elkartean, 19:00etan.
- **SORALUZE Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** Plaza Berrixan,19:00etatik 19:45etara.
- **ELGOIBAR Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** Sarek deituta. Kalegoen plazan, 20:00etan.
- **MALLABIA Bertso jaialdia** Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Irune Basagoiti, Araitz Katarain, Aitor Etxebarriazarraga, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Antolatzailea: Euskal Birusa. Sarrera: 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **MENDARO 'Gararock udazkenean': Rudiger taldearen kontzertua** *Gararock udazkenean* ekimenaren baitan antolatuta. Doan. San Agustin kulturgunean, 22:00etan.
- **MALLABIA Nekazaritza eta obra ibilgailuentzako IAT mugikorra** Arreta aldez aurreko hitzorduaren bidez emango da. IATrekin harremanetan jarri 686 90 04 32 telefono-zenbakira deituta, eguna eta ordua hitzartzeko. Ikuskapenak Goitondo Bekolau kaleko 14. zenbakian dauden udal-instalazioetan egingo dira.

LARUNBATA 31

- **ELGOIBAR Azken zapatuko feria** Debemenek eta Udalak antolatuta, Alta Agirre plazan. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisau Taldearen produktuen salmenta. 11:00etan, CD Elgoibarrek pintxoak prestatuko ditu Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin.
- **SORALUZE Truke eta azoka eguna** 11:00etan, postuen muntaia. 12:00etan, barbakoa. 14:00etan, *traje* bazkaria. Ondoren, bazkalosteko jolasak eta solasaldiak. Gipuzkoa etorbideko plazan, 11:00etan.
- **DEBA Azaroaren 11ko greba antolatzeko asanblada** Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren ekimenez. Foruen plazan, 11:30ean.
- **ELGOIBAR ONUko bizilagunen bazkarian izena emateko aukera** Lanbroa tabernan, 12:00etatik aurrera.
- **DEBA Kontzertua: Nokono** Asier Mendizabal musikari donostiarraren kontzertua. Doan. Ceviche jatetxean, Zesterokoa plazan, 20:00etan.

IGANDEA 1

- **ITZIAR Itziarko Peria** 09:00etatik 14:00etara, bertako produktuen salmenta, artisau postuak, makineria, jan-edana nahieran... Goizean, Euskal Herriko Sasi Ardien VII. Txapelketa eta Gipuzkoako Ahuntz Azpigorrien VII. Txapelketa egingo dira –sari banaketa, 12:00etan–. 12:30ean, sasi-garbitzeko robot-makinekin erakustaldia, feriaren aurreko zelaian. 10:30ean eta 12:30ean, Marques de Saka ganadutegiko poney eta txahal txikiak. 18:00etan, Lau eta Erdiko Txapelketa Nagusiko emakumezkoen pilota partida, Itziarko Zabalsoro frontoian. Sarrera, doan. Itziarko industrialdean eta herriko beste zenbait gunetan.
- **DEBA Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketa** Aldats pilotalekuan, 10:00etan.
- **ELGOIBAR Santu Guztien Festaburua** Parrokian, 11:00etan.
- **ELGOIBAR Antzerkia: 'Ama, amama, mamuak'** Naita konpainiaren eskutik, Herriko Antzokian, 16:30ean.
- **DEBA Kina jokoa** Arbil elkartean, 17:30ean.
- **MENDARO Azaroa Gaztelekuan** Ekintza librea. Gaztelekuan, 18:00etan.
- **SORALUZE Haurreskolan izena emateko epea zabalik** 2025 eta 2026. urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek eska dezakete plaza Haurreskolan, azaroaren 10era bitarte. Izena emateko: *ikasgunea.euskadi.eus* edo Haurreskolan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago: 943 75 13 32 edo *soraluze.soraluze@haurreskolak.*

ASTELEHENA 2

- **ELGOIBAR Hildako fededunen oroimena** 09:00etan, Maalako kaperan eta 19:30ean, Parrokian.
- **SORALUZE Pentsio publiko duinen aldeko elkarretaratzea** Soraluzeko Pentsiodunen Mugimenduak deituta. Plaza Barrixan, 11:45ean.
- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **MENDARO Ludotekako ekintzak** Bitxiak sortzen, azaroaren 2tik 6ra. Ludotekan, 17:00etan.
- **ERMUA Barreterapia tailerra gorputzaren bidez** Gorputz-adimenaren eta barreterapiaren bidez, ikaskuntza sakonak modu erraz eta dibertigarrian barneratzen lagunduko duten teknika esperientzialak erabiliko dira. Egunak: azaroak 2, 9,16, 23. Eta 30 Prezioa: 5 euro. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.
- **ERMUA Gastronomia tailerra** Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Txinako eta Japoniako gastronomia eta tradizioak ezagutzeko tailerra, 18 urtetik gorakoentzat. 25 euro –22,50 euro, deskontuarekin–. Plaza kopuru mugatua. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **MALLABIA Auzo bilera: herrigunea** Udalak antolatuta, 2026ko balantzea, 2027ko udal-aurrekontua eta herritarren ekarpenak aztertuko dira. Kontsejuzarran, 19:00etan.

ASTEARTEA 3

- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** Belaunaldi artekoa. Udal Liburutegian, 15:30ean.
- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** Belaunaldi artekoa. Udal Liburutegian, 16:45ean.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Indar ariketak 50-65 urte bitarteko emakumeentzat*'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazken eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Tolarekua aretoan, 17:45etan.
- **ERMUA 'Viñetas' komikien irakurketa kluba: 'Historias del barrio'** Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **ERMUA Bilboko akordeoi orkestra sinfonikoaren kontzertua** Zuzendaria: Amagoia Loroño. Sarrera: doan. Ermua Antzokian, 19:30ean.

ASTEAZKENA 4

- **ITZIAR Odol ematea** Aurrez txanda eskatzea komeni da. Interesa dutenek 634 07 34 98 telefono zenbakira deitu edo idatzi beharko dute. Burugorri gainean, 16:30etik 20:10era.
- **ERMUA 'Guraizeekin marrazten' tailerra** Guraizeekin marrazteko artea erakusten duten tailerra, papera mozteko teknika tradizional, erraz, sortzaile eta harrigarri baten bidez. Egunak: azaroak 4 eta 11. Irakaslea: Jesika Martinez Alcocer. Prezioa: 5 euro. Hizkuntza: elebiduna. Emakumeen Topalekuan, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Zurrunbiloa: trebakuntza saioa** Iñaki Alonso kirol entrenatzaile eta Kuniko zuzendariak emango du: *Kirola: ingurune segurua?*. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian, 18:00etan.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Crochet tailerra: hariz hari emakumeon* sareak ehuntzen'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazken eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Solasaldia: 'Erritu bat herritzeko'** Aritz Ibañez Lusarreta eta Oier Araolaza Arrieta izango dira hizlariak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Solasaldia: 'Maitatu, zaindu zure burua eta izan zoriontsu'** Lorea Salegik gidatuko du. Lilan, 19:30ean.
- **ELGOIBAR Epeletan literatura tailerra** Mariana Travacioren *Barkamena existituko balitz bezala* liburua landuko dute. Gotzon Garate liburutegian, 19:30ean.

OSTEGUNA 5

- **DEBA Hitzaldia: 'EAEko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmena'** Hizlaria: Guillermo Dorronsoro Deusto Business School-eko dekano ohia eta ekonomian aditua. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Kultur Elkartean, 11:00etan.
- **SORALUZE Bilera: 'Harrera komunitarioa'** Soraluzeko Udaleko Harrera Komunitarioaren Planaren baitan antolatutako bilera. Kalebarren 8an, 17:00etan.
- **ERMUA 'Gaztetxo letrazaleak' gazteentzako irakurketa kluba: 'Munstro txikiak'** 9-11 urte bitartekoentzat. Udal Liburutegian, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Greba orokorraren inguruko asanblada** Debabarreneko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:00etan.
- **ERMUA 'Irakurketa gozagarri' euskarako irakurketa kluba: 'Barne zerbitzuak'** Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Isiltasun Eskolaren topaketa** Jose Cruz Igartuak gidatuko du. Kultu Etxean, 19:00etan.
- **SORALUZE Liburu aurkezpena: 'Irure'** Barne zerbitzuak (Katixa

Agirre). Udal Liburutegian, 19:00etan.

OSTIRALA 6

- **ERMUA Tailerra: 'Dantza flamenkoaren bidezko ahalduntzea'** Tailer horretan, arte horren erritmoa, mugimendua eta oinarrizko nozioak ikasiko dira giro hurbil, dinamiko eta dibertigarrian. Ez da aurretiko esperientziarik behar. Egunak: azaroak 6, 13, 20 eta 27. Irakaslea: Askoa Etxebarrieta Lasheras. Prezioa: 5 euro. Hizkuntza: elebiduna. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.
- **MENDARO Azaroa Gaztelekuan** *Nor naiz? 20 galdera* egitasmoa. Gaztelekuan, 18:00etan.
- **DEBA Jon Plazaolaren 'AA Aita'** Umorezko bakarrizketa. Emanaldi bikoitza: lehena 18:30ean eta bigarrena 20:30ean. Kultur Elkartean.
- **SORALUZE Hikafari-meriendak** Pil-pilean euskaltzaleen elkarteak antolatuta. Allegro elkartean, 19:00etan.
- **SORALUZE Antzerkia: 'Kandida'** Tartean antzerki taldearen eskutik, Antzerki Garaia zikloaren baitan. Herri Antzokian, 20:00etan.
- **ERMUA Musika: Ruper Ordorika & Mugalaris** Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Bilboko Mendi Film Festivaleko filmak** Bilboko Mendi Film jaialdiko azken edizioko pelikula onenen emanaldiarekin hasiko dute Morkaikok antolatutako 2026ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa (2026ko UMEZ). Herriko Antzokian, 21:00etan.
- **DEBA Bertso afaria** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira. Bertsolariak: Iraide Onaindia, Elixabet Etxandi eta Alexander Idoeta. Sarrerak: 10 euro. Gaztetxean, 21:30ean.
- **ELGOIBAR Kontzertua: Kuttune taldea** Aizu! Ostalarien Elkarteak antolatuta. Maalan, 23:00etan.

GAU BELTZA-ARIMEN GAUA

ELGOIBAR

OSTIRALA 30

- 18:00etan, Gaba Beltza, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikak Udalarekin lankidetzan antolatuta. Maalan. Egurrek, Atabalek eta Txankakuak ere hartuko dute parte. Aurpegia margotzeko aukera egongo da, eta ekitaldia 19:30ean hasiko da. Argiak itzaliko dituzte, eta, zuziak eskuan dituztela, danborra joz iritsiko dira Maalara musikariak. Alex Etxegibelek *Kanela, kalabaza eta gatxak* ipuina kontatuko du ondoren.

MENDARO

OSTIRALA 30

- 10:30ean, *Kalabaza piztu* ipuin kontaketa izango da LH1 eta LH2ko haurrentzat, Lur Usabiagaren eskutik, Udal Liburutegian –itxita egongo da goizean–.
- 17:00etan, Gau Beltzaren bila, ludotekan.
- 18:00etan, Gau Beltzaren prestaketa, gaztelekuan.

LARUNBATA 31

- Arno Gazte zerbitzuak antolatuta, 16:30etik 18:30era, galleta tailerra, aurpegi margoketa eta eskulanak, frontoian.
- 18:00etatik 20:00etara, beldurrezko pasabidea, San Agustinen.
- 19:00etan, *Tarot madarikatua,* etorkizuna iragartzeko kontsultategia. Galletiak Fabrik gozotegiko sarrera zaharrean.
- 22:00etan *Su talka* - Deabru Beltzak, herriko enparantzan, Udalak antolatuta.

ERMUA

OSTIRALA 30

- 23:00etan BarikuTXO: *Gaba Baltza iritsi da!* Eskilarapeko Ateneoan.

LARUNBATA 31

- 17:30ean, disko-festa, Orbe Kardinalaren plazan.
- 21:30ean, Kluedo, Merkatu plazan.

MALLABIA

OSTIRALA 30

- 17:00etan, ginkana –lehen mailatik gora–, parke estalian.

LARUNBATA 31

- 18:00etan, kalabazak hustu eta aurpegiak margotzea, Kontzejuzarrean. Nork bere kalabaza, tresnak eta arropak eraman behar ditu. Haur bakoitzarekin gutxienez heldu bat.
- Aldi berean, *photocall*-a plazan.
- 19:00etan, *Iluntasuna piztu...* ekitaldia, plazan edo elizpean.
- Jarraian, herrian kantu-erronda.
- Ondoren, opil txorizoduna eta salda beroa, plazan edo elizpean.
- 20:30ean, *Bataz nahiko* antzerkia, Amezaga jauregian hasita.

SORALUZE

LARUNBATA 31

- 18:30ean, ibilbide misteriotsua.
- 19:30ean, eskerako tartea.
- 20:30ean, Lekittoko Deabruak, herrian zehar.

DEBA

OSTIRALA 30

- 17:30ean, ginkana, Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldearen eskutik, haurrei zuzendua. Udaletxe azpiko arkupeetan.
- 21:00etan, *Psycho clown* ikuskizuna –piroteknia, perkusioa eta antzerkia–. Herriko kaleetan zehar.

LARUNBATA 31

- 11:00etan, *Beldurrezko etxea,* LHko 1, 2 eta 3. mailetakoei zuzenduta. Gaztelekuan.
- 16:00etan, kale apainketa, Kultur Elkartetik abiatuta.
- 17:30ean, txokolate-jana eta makillaje tailerra, zumardiko kioskoan.
- 18:30ean, *photocall*-a, zumardiko kioskoan.
- 19:00etan, arimen elkartzea, zumardiko kioskoan.
- 19:15ean, arima txikien dantzaldia, zumardiko kioskoan.
- 19:30ean, Arimen Ibilbidea: kioskotik abiatuko da, eta Lersundi, Plaza Zaharra, Ostolaza kalea, Portu kalea eta Foruen plaza zeharkatuko ditu; berriz ere Lersunditik Plaza Zaharrera joan, eta amaiera-ekitaldia bertan egingo dute.
- Dantzaldiak ere izango dira tartean, iaz bezalaxe, Kulunkaren eta Gure Kai eta Kalez Kale txistularien eskutik. Eta beldurren erretzeak, kontakizunek, irrintziek, txalapartariek eta Kalean Kantuz-ek biribilduko dute jaialdia.

IGANDEA 1

- 11:00etan, *Beldurrezko etxea,* LHko 4, 5 eta 6. mailetakoei zuzenduta. Gaztelekuan.
- 18:30ean, film emanaldia, gaztelekuan.

ITZIAR

OSTIRALA 30

- 17:00etan, ludotekako ekintza HH2-LH3 bitarteko haurrentzat, Kalebarreneko lokalean.
- 17:00etan, argazkilaritza tailerra LH4-LH6koentzat, Apaiz etxean.
- 19:30ean, parkean elkartuko dira herritarrak, Heriyo noiz etorriko zain. Ondoren, ipuina, Tranpapean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

30 BARIKUA **Arriola / A. Zalduegi / M. Alves**
31 ZAPATUA **Fernandez / *Arriola / A. Zalduegi / I. Lecumberri / I. / *I. Ugarte**
1 DOMEKA **Fernandez / A. Zalduegi / A. Alcala**
2 ASTELEHENA **Yudego / L. Apraiz / I. Lecumberri**
3 MARTITZENA **Oruesagasti / L. Apraiz / I. Ugarte**
4 EGUAZTENA **Barrenetxea / L. Apraiz / A.M. Baz**
5 EGUENA **Soto / L. Apraiz / M. Alves**
6 BARIKUA **Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri**

*09:00-14:00 / *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA
'Inurri itsuak'
Ostirala, 30: 19:00
Larunbata, 31: 19:00, 22:15
Igandea, 1: 19:00
Astelehena, 2: 21:00
'Naza'
Asteazkena, 4: 21:00
'En el corazón de la bestia'
Ostirala, 6: 19:00

DEBA
KULTUR ELKARTEA
'Nuremberg'
Igandea, 1: 19:00

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA
'Arriba Tutto'
Larunbata, 31: 19:30
Astelehena, 2: 20:30
'Verity: la sombra de un engaño'
Larunbata, 31: 22:00
Igandea, 1: 19:30
'La isla olvidada'
Igandea, 1: 17:00
'Kakeru'
(Zine-kluba)
Osteguna, 5: 20:30

EIBAR
COLISEO ANTZOKIA
'Wicker'
Larunbata, 31: 17:00, 19:45 22:30
Igandea, 1: 17:00
Astelehena, 2: 19:30
'Nuda propiedad'
Larunbata, 31: 17:00, 19:45 22:30
Igandea, 1: 20:00
'Lucky Strike'
Larunbata, 31: 19:45 22:30
Igandea, 1: 20:00
Astelehena, 2: 19:30
'Dino Familia'
Larunbata, 31: 17:00
Igandea, 1: 17:00

AZKEN BERBA

Nahieza

AMATIÑO

Orain berrogei urte, Kanpanzarko baserritar batek eta biok elkar jo genuen autoz, Elgetara bidean. Paperak baketsu egin arren, aseguru-etxeek epaitegira eraman gintuzten. Hainbat astebete geroago, arrasatearra eta biok Bergarako auzitegiaren sarreran elkartu ginen kontu kontari, auzi-aretoko atea ireki zen arte: '*Pueden entrar!*'.

Aurrez aurre epailea eta legegizon bi, toga beltzez jantziak. Elkarrekin eztabaidatzeari ekin zioten, erdara barroko handi-mandian, hiru semaiko hitz galantekin. Mundu irreala, Justizia Jauregiaren atarian laga genuenarekin zerikusirik ez zuena. Berrogei urte geroago, herri-administrazioa, hezkuntza eta hedabideak euskaraz landu eta garatu dira, baina Justiziaren buruak lehengo lepotik jarraitzen du. Azken bi belaunaldiotako ildoari bizkar ematen dirauen Justizia ez da justua. Baina ez da berrogei urtez denborarik izan ez duelako, nahi izan ez duelako baino.

Nahieza... euren euskara hobetzeko aukera guztiak izan arren, urteak joan eta urteak etorri, batere ahalegindu ez diren euskaldunen berbera.

BUKATZEKO

Arrain-sardak liruratuta

Ikusmina eta harridura sortu du Elgoibarren Deba ibaian agertu den arrain-sardak

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Pozgarria da natura bizitzaz gainezka ikustea, bereziki bizitza-eztanda hori lehenago bizigabea edo antzua zen lekuetan gertatzen denean. Zorionez, azken urteetan ohitu egin gara Deba ibaiko uretan arrainak, aingirak eta beste hainbat bizidun ikustera. Halere, ez dira horrenbeste urte igaro ahateak ibaietako faunara itzuli izana albiste izan zen garaitik. Hala, nondik gatozen ikusita –ibaiko urak erabat kutsatuta zeuden garaietatik–, ulergarriagoa da Deba ibaian agertu den arrain-sardak ikusmina piztu izana, eta herritar ugarik egin dute geldialdia zubian, ibaira begiratu eta arraintxoak ikusteko. Izan ere, Urazandiko zubitik ikus daiteke ehunka arrain txikiz osatutako multzoa edo sarda; egunak daramatzate leku berean. Geldirik badaude, ur azalean dagoen olio-orban ilun handi bat dirudi; ahateak gainetik igarotzen direnean bakarrik antzematen da bizidunez osatutako multzoa dela, haien bidetik aldentzen saiatzen direnean.

Altzola parean ere ohikoa izaten da arrain-multzoak ikustea, baina herritarrek ikusteko moduko tokian bistaratu da oraingo multzo hori, eta miresmena eragin du; batik bat, duen tamainagatik. BARRENAk kontsultatutako aditu batek azaldu duenez, halako arrain-multzoak ez dira horren harrigarriak ere, eta ikusi izan ditu antzerakoak Maltzaga inguruan. Azken hilabeteetan euri gutxi egin du, eta, ondorioz, ibaiak emari oso txikia eduki du denbora luzean. Beharbada, eragina izan du arrainen ugalketa bizkortzeko edo errazteko.

Arrainkumeak

Ziur jakiterik lortu ez dugun arren, loinaz osatutako arrain-multzoa izan daiteke, baina, arrainkumeak direnez, horrek zaildu egiten du identifikazioa, oraindik guztiz garatu gabe dituztelako ezkatak, ahoaren forma eta gainerako ezaugarri anatomikoak. Deba ibaian eta euskal kostaldeko ibaietan oso ugaria den espeziea da loina edo loina txikia. Udaberrian eta udan kume asko jaiotzen dira eta korronte gutxiko eremuetan biltzeko ohitura izaten dute. Taldekoiak dira; jaki bila uretan korrontearen kontra igerian ibiltzen dira, sardetan bilduta.

Arrain horiek erreofiloak dira, bizi izateko nahiago dituzte ur korronteak, freskoak, ongi oxigenatuak. Hala eta guztiz ere, ur lasaiagoetan eta sakonagoetan ere egoten dira sarritan, ibai eta erreka ertzetako zuloetan ezkutatuta, sardak osatuz. Duela urte bat, Elgoibar parean arrantzan ibili ziren Eibartik etorri ziren bi lagun, eta aspaldi ikusi gabeko irudia utzi zuten. Kanaberarekin aritu ziren arrantzan, baina hurrengoan, sarea hartuta etorri beharko dute.

Urazandiko zubitik ikus daiteke arrain-sarda; egunak daramatzate leku berean

Ehunka arrain gaztez osatutako multzoa. ASIER ORBEA



Ur azalean dagoen orban bat dirudi arrain multzoak zubitik. DENIS SAIZ ETA ASIER ORBEA